

Egunkaria

OSTEGUNA

2003ko otsailaren 20a - XIV. urtea - 3.789. zenbakia - Salneurria: 0,80 euro

GEHIGARRIA



/erdiko orrialdeak

POLIZI OPERAZIOAK

Espainiako Poliziak 14 pertsona atxilotu ditu, eta 18 etxe arakatu

OPERAZIO ZABALA. Gipuzkoan bost lagun atxilotu dituzte, Nafarroan lau, Bizkaian hiru eta Araban bi, Baltasar Garzon epaileak agindutako operazioan

AKUSAZIOA. «ETAren zuzendaritza berriaren laguntzaile taldea» osatzea leporatu die atxilotuei Espainiako Bame ministro Angel Acebesek

ERTZAINZAREN OPERAZIOA. Herenegun atxilotutako hiru adingabekoetarik bi preso sartu dituzte Madrilén, eta Balzak esan du inkomunikazioa «ezinbesteko tresna» dela /6-8

EKIALDE HURBILEKO GATAZKA

Israelgo Armadak 14 palestinar hil ditu Gazan eta Zisjordanian egin eskuhartzeetan

Israelgo ordezkariekin dituen elkarrizketak bertan behera uzteko eskatu dio Hamaseko bozeramaileak PANi

Gazan eta Zisjordanian atzo goizaldean eginko esku-hartzeetan, Israelgo Armadako soldaduek 14 palestinar hil zituzten; 11 Gazan eta hiru Zisjordanian. Hildakoetarik hiru, Palestinako inteligentzia zerbitzuetaiko kideak ziren; bost Palestinako Aginte Nazionalako poliziak; eta beste bat Hamaseko uestezko ekintzailea. Israelgo Armadaren oldartzeari erantzunez, Hamasek lau kohete Kassam jaurti zituen Sderot hiriko enpresa batera, eta langile israeldar bat zauritu zen. Hamaseko bozeramaileak PANi eskatu dio Israelgo ordezkariekin izaten ari den elkarrizketak bertan behera uzteko. /20



Israelgo Armadak Gazan hildako hiru palestinarren gorpua, jendez inguratutik.

GAURKO ELKARRIZKETAK



IMANOL LARZABALA
Kantaria

«Gaur egingo niri hona itzul berriro di hasteko g

ALDERDI POLITIKOEN LEGEA

Jimenez de Pargaren errefusatzeari atze bota du Auzitegi Konstituzionalak

ELURTEA

Uharte-Arakilgo bat hil da elurjau batean /13

LAB-EN BATZAR NAZIONALA

ELAren eta LAB arteko elkarlana arlo politikora eramateko apust egin du Rafa Die

EUSKAL PRESOK

Barandalla kartzartatu dute berriro ebakuntza egin ebi atera /8

AUTODETERMINAZIOAREN BILGUNEAK

Martxoaren 15a erabakiko du Auzitegi hauteskundeengurutzan zer egin

MUSIKA

Urretxindorrak taldisko batean bildu bere kanta guztia

MARTXOAK 3 GOGOAN

(in)komunikazioaren atarian, txema rami-rez de la piscina

joseina etxeberria & disko festa

udal euskara plana

iritzia. upv-ehu gaztedi rugby taldea. literatura. rikardo arregi.

historia. mikel soraur-en. artea. edurne herran. bidaiak. kuba. sukaldaritza. denbora-pasa. musika...

BIDEGABEKERIA, GAITZIDURA, EUSKARA & EUSKAL KULTURAREN KRIMINALIZAZIOA, TORTURA, EGUNKARIA AURRERA, BETIKO, EGUNERO!

DENOK GARA EGUNKARIA!

Fundación Salvó el Sábalo Fundación

Egunkaria

OSTEGUNA

2003ko otsailaren 20a - XIV. urtea - 3.789. zenbakia - Salneurria: 0,80 euro

Egunkaria

OSTEGUNA

POLIZI OPERAZIOAK

Espainiako Poliziak 14 pertsona atxilotu ditu, eta 18 etxe arakatu

OPERAZIO ZABALA. Gidatuen bost lagun atxilotu dituzte. Nafarroan lau, Bizkaietan hiru eta Araban bi. Baitasun Gertzen errepalean agintariek operazioan

AMUZIATIA. «ET Aren zuzendaritza berriaren laguntzarekin» osatuta leporatu die atxilotuak Espainiako Bune ministro Angel Acebesek.

ENTZAINZAREN OPERAZIOA. Hereneguri atxilotutako hiru indigibelek atari bi preso sartu dituzte Madrilén, eta Bilok osan da indigibelek atxilotutako erremio dela

EKIALDE HURBILEKO GATAZKA

Israelgo Armadak 14 palestinar hil ditu Gazan eta Zisjordanian egin eskuhartzeetan

Israelgo ordetzaiek dituen elkarizketak bertan behera uzteko eskatu dio Hamaseko bozeramaileek PNI

IMANOL LARZABAL

«Gaur egunean ezingo nintzateke hona itzuli; ez dut berriro disgustuekin hasteko gogorik»

FRANCISCO ETXEBERRIA

«Kontua ez da gorpuk aurkitzea bakarrik; haien historia berregitea garrantzitsua da»

Egunero



Itxia, baina ez isildua

- EGUNKARIA ibi eta bertako 10 arduradun eta ardura-dun ohi atxilotu ditu Guardia Zibila
- Manifestaziora deitu du euskalgintzak bihar Donostian, gizarte eragile ugari babestuta
- Adierazpen askatasunaren aurkako eraso dela salatuko dute hainbat talde eta erakunde
- EGUNKARIAK dio konpromiso bakkarra duela, euskarekin eta egiazko informazioarekin

EGIN ZAITEZ HARPIDEDUN: 943 303 555 / 943 303 554

Euskaldunon Egunkaria-erikiko elkartasuna egunero present egon dadin, Egunkaria-ren ahotza ozenki heda dadin, hona hemen **GEU ALDIZKARIA ETA ELKARTEAREN PROPOSAMENA**:

Har ezazue Egunkariako logotipoa, edo azal oso bat, A-3ko neurrian fotokopiatu, plastifikatu eta eskegi ezazue zuen etxeko edota lantokiko leihoetan, balkoietan; bestela, txikiago eginenez, kotxean ere koka daiteke. Ekiozue proposamenari, eta aldi berean, zuen lagunartean zabaldu.

Gauza gehiago zehaztu ahala, horren berri emango dizuegu. Jakin dezazuen, Gasteizen **Egunkariaren 'Laguntza taldea'** abian da dagoeneko hiriko talde desberdinen indarrak biltzeko eta koordinatzeko. A

Bestetik, egunik egun antolatzen ari diren **mobilizazio eta ekimenetan parte hartzeko deia** egiten dizuegu. Orain arte, egun batetik bestera sortzen ari diren mobilizazio eta ekimenak dira. Geu elkarte eta aldizkaria ekimen horietan parte hartzen ari da: komunikatuak, atxikimenduak, mobilizazioak, laguntza, elkartasuna. Beraz, adi egon deialdiei, eta agertu Egunkaria-erikiko zure elkartasuna.

Egunkaria aurrera

orain!

INOIZ BAINO GEHIAGO

euskarak behar zaitu

Azkenik, Euskal Herri mailan **Egunkarirako DIRU-BILKETAK** egingo dira. Geu-ri dagokiolarik, Topagunea-tik, euskara elkarte eta komunikabideen Federaziotik bideratuko dugu. Hortaz, Egunkariaren aldeko diru-ekarpenak egin nahi izatekotan, hona hemen Geu elkartearen kontu korrantea: 30350142261420005615 (Euskadiko Kutxa) *Kontzeptuan jar ezazue: Egunkaria

DENON ARTEAN LORTUKO DUGU!

EGUNKARIAK BEHAR GAITU. EGUNKARIA BEHAR DUGU!

Fundación Sancho el

ahorik aho:



8-9.
orr.

'(in)komunikazioaren atarian;
prentsa eta euskal gatazka',
txema ramirez de la piscina
egilearen eskutik

JOSEINA ETXEBERRÍA,
disco festaz



10-11.
orr.

12-13.
orr.

UDAL EUSKARA
PLANAREN
AUZIA

gaika:

MARTXOAK 3
lazarria gogoan

16-19.
orr.



20-21.
orr.

UPV-EHU GAZTEDI
RUGBY TALDEA

GAINERA...

• Han-hemenka (4-7. orr):

Iritzian, edurne begiristain, egunkariko langilea /
euskadiko gazteriaren kontseilua. **kaleak dio:**
martxoak 8. **araba bixotzian.** izena eta zenbakia.
ikusi: EGUNKARIAREN ITXIERA.

• Euskaltasunean lagun (15. orr): jokin sanz

• KulturAisialdiari so (22-35. orr):

AGENDA (22). **IDAZLEEN GURPILA** (IV)-rikardo arregi:
"afaria" (23-24). **HISTORIA ZERTZELADAK**-mikel
sorauren, nabarralde-ren eskutik (25-27). **ARTE**
TXOKOA- edurne herran (28-29). **naturaren isladak**
(29). **bidaiaik:** Kuba (30). **sukaldaritza** (31). **denbora-**
pasa. artista berrien txokoa (32).
geu-ren eskaintza (33) eta **gomendioa** (34).
komikia (35). **korrika kulturala.** araba euskaraz (36).

Azala ...



Hau duzue hasiera bateko
azala, 'martxoak 3'ri eskainia.
Baina egoerak behartuta aldatu eta
Euskaldunon Egunkariari eskaini
diogu gure omenladirik beroena
egin nahian.

EGUNKARIA AURRERA!

> **GEU**


GEU Elkartearen ekimenez sortua (1992)
Geu aldizkariko taldeak egina, bideratua eta kudeatua
Erredakzioa: Pedro Asua, 2-3.a.
Tfnoa. eta Faxe: 945 22 21 53 • e-mail: geugaste@grn.es

Zuzendaria: estitxu breñas glz. de zarate
Aldizkariko batzordea: josune veleaz de mendizabal, edorta sanz, edurne
begiristain, estitxu breñas eta
david alvez
Kazetariak: leire lpz. de aberasturi, edurne begiristain,
josune veleaz de mendizabal
edorta sanz/
Argazkiak: e.b.z.
Bestelako irudiak-bilaketa: e.b.z.
Testuen orrazketa-zuzenketa-
osaketak: e.b.z.
Maketa: patirke sanz eta david alvez
logoa: io grafix
komikia: iñigo sarasola
Kolaboratzaileak: iñaki zorrakin, abarrots, euskadiko gazteriaren
kontseilua, rikardo arregi, mikel sorauren-nabarralde,
arte eta lanbide eskola, diocesanas-mendizorroztako
ostalaritza eskola, ania ibisate, oskar ugarte eta luma
aldizkaria
Publizitatea eta Banaketa: edurne begiristain
Sustapen-harpidetza saila: edurne begiristain, e.b.z.,
Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)
Ale kopurua: 2.500

LG: VI-582/92 - ISSN: 1133-0988

Frankeo Itundua 48/27 zenb. Aldizkari hau paper berziklatuaz egina dago. Geu
aldizkariak ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik.

Laguntzaileak:





edurne begiristain

euskaldunon egunkariko
eta geu aldizkariko langilea

Tinko erantzun dezagun!

Sinesgaiztasuna, tristura, amorrua. Horiexek Euskaldunon Egunkariaren itxierak eragin dizkidan sentipenak. Sinesgaiztasuna, egoera honek amesgaizto bat dirudielako, erabat erreala izan arren. Tristura, azken 13 urteotan Euskal Herriari ezinbesteko zerbitzua eman dion kazeta itxi egin digutelako. Amorrua, euskaldunoi, euskal gizarteari eta oro har Euskal Herriari eginiko erasoak justifikaezina delako.

Isilarazi nahi gaituzte, bai, baina ez dute lortuko. Egin egunkaria itxi zuten, Ardi Beltza aldizkaria izan zen hurrena, orain Egunkariaren txanda izan da. Noiz arte jasan beharko ditugu eraso hauek? Noiz arte utziko diegu Euskal Herria zapaltzen? Noiz jarriko diegu muga? Noiz esango diegu Aski Da!? Euskaldunon Egunkariaren itxiera gertatu zenez geroztik, asko izan dira bertako langileok jaso ditugun atxikimendu eta elkartasun mezuak. Horiek guztiek erakutsi digute ez gaudela bakarrik eta askatasunaren aurkako atentatu honekin desados daudela. Euskaldunon Egunkariaren itxierak adierazpen askatasuna, informatzeko eskubidea, euskara eta demokraziaren aurkako eraso gogorra dela argi dago, baina hori baino gehiago ere bada. Izan ere, Egunkariaren aurkako erasoarekin Euskal Herriaren bihotzari kalte egin diote, milaka eta milaka euskaldun, euskaltzale eta euskal herritarren bihotzei kalte eginez; Egunkaria herri honetako ondare delako, herri honetako parte delako, herri honetako aniztasunari irekita

dagoelako eta euskaldun guztien egunkaria izaten saiatu delako.

Euskal herritarrek Egunkaria bezalako egunkari bat behar dute esparru komunikatiboan, eta nago berriz ere izango dutela. Baina horretarako, gizarte eragileek, alderdiek, sindikatuak eta erakundeek konpromiso zehatzak hartu behar dituzte, atzera ere Egunkaria bezalako proiektu bat kalean egon dadin, beste izen batekin beharbada, baina filosofia eta ildo berari jarraituz. Konpromiso zehatzak behar ditugu. Tamainako erasoaren aurrean inor ezin da geldirik geratu. Euskal Herriaren bihotzari egindako zauriak erantzun tinko eta eraginkorra behar du, betiko sendatu nahi badugu, bederen. Otsailaren 22an Donostian ikusi nituen begiek halaxe eskatzen zuten. Begi lausoak ikusi nituen, malkoez betetako begiak, amorrut bustitako begiradak. Herri honen sufrimendua behingoz bukatzea zioten begi horiek, eta Euskaldunon

Egunkariarekin jazotakoa beste behin ere gerta ez dadin eskatzen zuten.

Zeri itxoiten ari gatzazkio, beraz? Euskal Herrian indar nahikoak daude Espainiako agintari, epaile, polizia eta indar errepresibo guztiei aurre egiteko. Bil ditzagun indar horiek guztiak eta aurre egin diezaiegun, bada!!! Egunkariaren itxierak zeozertarako balio badezake, horretarako da. Euskaraz idatzi nahi dugulako, euskaraz irakurri nahi dugulako, Euskal Herriak merezi duelako, guztion artean zabalduko dugulako. Mila esker une zail hauetan modu batean edo bestean elkartasuna adierazi diguzuen guztioi. Esker mila, bihotzez. Aurrera begira zuekin kontatzen dugu. Aurrera goazelako.

Lankideak askatu!
Egunkaria aurrera!
Euskal Herria aurrera!

(torturen berri izan baino lehenago idatzia)



Argazki Press



Patricia G. Martir

Euskadiko Gazteriaren Kontseiluko

Bakearen Heziketarako Teknikaria

www.egk.org

Euskadiko Gazteriaren Kontseilua

GUDARIK EZ !!!

Orain dela gutxi munduaren bake egoeraren inguruko azterketa egiteko une aproposa izan dugu, eta egia esateko azterketa hau ez da nahi bezain atsegina. Bakearen eta Indarkeria ezaren eguna ospatu berri dugu Mahatma Gandhi hil zuten egun berean. Ironiaz eta isekaz jasotzen dugu beraz aipatutako egun hau, mundua berehalakoa eta odoltsua aurrikusten den guda baten aurrean prestatzen ari denean. Hori, garapen bidean dauden herrialdeetako guda "txikiak" kontuan hartu gabe, zeintzuk onar dezagun, ez dakigun gauza handirik beren helburuen artean petroleoa, gas naturala, etab. ez dauzkatelako. Diktadurak, garbiketa etnikoak eta ezberdina den ororen triskantza, eta generozko indarkeria, bidean galtzen goazen guda ere duguna... ez aipatzearren.

Jendea printzipioz bakearen alde azaltzen bada ere, onartu beharra dago gaur egungo gatazken aurrean bake jarrera aktiboa hartzea ez dela ohizko hautaketa. Hobe esanda, gudaren kontzeptua guztiek ukatzen duten zerbait bada ere, ohorea, aberria, american way of life delakoa, Jainkoa, edo Ala... askatzeko bide bakarra dela erabakiko duenik badago beti. Hain zintzoak diren ideien alde borrokatzen den guda baten aurrean aurkako azaltzeak, aberriaren nahiz iritzi publikoaren aurka joatea litzateke. Elkarriketaren aldeko azaltzea ahuleziaren eta traizioaren

adierazgarri izan ohi da. Dena dela, zure herriaren ohorea eta hain emankorra den petrolio putzu hori defendatzeko armak hartzearen alde egitea oso errentagarri izaten da hauteskundeei begira; eta bide batez iritzi publikoa, erosiak dauden batzarkide eta gezurretan ari diren enpresez ahaztu egiten da. Zer esanik ez, heritik duela denbora asko atera ez ditugun arma hauek frogatzeko honek ematen digun aukeraz paregabeaz.

Guda bat egiteko dauzkagun arrazoi guztiak ikusita, gezurra dirudi oraindik ere bakearen alde egiten duenik egotea. Zertarako galduko dugu denbora negoziaketetan manu militari zerbait lortzerik badugu? Hare gehiago, negoziaketaren bidez "besteak", "ezberdina denak" ere, suntsitua izatea baino zerbait gehiago lortuko badu? Zertarako elkarlanaren bidea jorratu errepresioarena har dezakegunean? Ez al da ba gatazkarekin bukatzeko erarik egokiena gatazka sortzen duen harekin amaitzea?

Agian, herri erretrauetara jotzeak galdera hauen aurrean lagun gaitzake. "De aquellos polvos vinieron estos lodos". Ekar ditzagun gogora I. Mundu Guda ostean Alemaniari ezarri zitzaizkion baldintza gogorrak, eta oroitu gaitezen nola erresuminak eta ekonomia krisialdiak Hitler boterean jarri zuten, beste guda bat deklaratu zuena. Ekar ditzagun gogora

Balkanetako gudak, bere errautsetatik noizean behin pizten direnak. Gogora dezagun duela hamar urte inguru gaurko gatazkaren protagonistak diren haiek telebistaz zuzenean ikusi ahal izan genuen lehen guda borrokatu zutela.

Mundu honetako Gobernuak gatazkak, ezberdintasunak edo arazoak konpontzeko bide egokiena Guda delakoan daude. Gu, gazte garen aldetik, ez dugu erresuminezko eta gorrotozko ondarea nahi, ez Euskadin, ezta Munduan ere. Gatazka, arazoa edo ezberdintasuna berez, txarrak ez direla uste dugu. Alderantziz, aberasgarriak izan daitezke elkarriketa, eztabaida eta elkarri entzutea aukera moduan hartuz gero. Euskadiko gatazka, beste gatazka askoren moduan, (nazio mailan ematen direnez gain, talde eta pertsonen artean ematen direnak ere) denek elkarri entzuten badiogu soilik konpon daiteke, guztiok errespetuz jokatzeko badugu, guztiok malgutasunez jokatzeko badugu. Gatazka konpontzeko bide errezena hautatzea, gudaren eta indarkeriaren alde egitea, har genezakeen erabakirik okerreza litzateke; epe motzera gatazka alde batera utziko balu ere, hortik denbora batetara berriro itzuliko litzateke, beti geratu ohi delako gorrotoa eta erresumina. Guda, arazoari aurre egin nahi ez dion hark hartzen duen bidea da. Bakea, bidezko izateko ausardia nahikoa duen hark egiten duen hautaketa da.

MARTXOAK 8

Martxoaren 8a emakume langilearen eguna dugu, eta beraz, emakume guztien eguna. Urteak dira egun hau ospatzen dugula gure gizartean. Baina emakumeok, parte hartzen al dugu bereziki "gurea" den egun honen ekimenetan? Pertsonalki, gure etxeetan, familia edota lagunekin, ospatzen al dugu? Ekimenen berri izaten al da? Parte hartzera animatzen al gara? Egun honen inguruan eta ospatzearen inguruan galdetu nahi izan diegu emakume gasteiztarrei. Hona hemen zer kontatu diguten.

1.- Pertsonalki, egunean bertan, modu bereziren batean ospatzen duzu zure eguna?



LORENA SOBRINO,
ikaslea

1. Ez. Sekula ez dut ospatu.
2. Ekimenak diren edo ez, ez dakit. Publikaturik ez dut ezer irakurri, baina dena den larregi ere ez dut prentsa irakurtzen.

2.- Gasteizen bertan antolatu ohi diren ekimenen berri ba al duzu? Parte hartzen al da?



JUANA MARI,
atso-agure zaintzailea

1. Ez. Ez zait burutik pasa modu bereziren batean ospatu genezakeela.
2. Ez dut parte hartzen. Badakit zerbait egin izan dela, baina ez dut uste zerbaitetarako balioko duenik.



IDOIA ARBULU,
Eusko Jaularitzako langilea

1. Ez, inoiz ez.
2. Ez dira nahikoa. Gure eguna egunerokoa da. Gustatuko litzaidake parte hartzea, baina astirik ez dago.



PILAR SANCHEZ,
langabetua

1. Ez, ospatu modu bereziren batean, ez.
2. Informazio gutxi dago. Niri behintzat ez zait heltzen, baina ziur ekimenen bat edo beste antolatu izan dela.

Izena

**EUSKALDUNON
EGUNKARIA,**

EGUNERO!

**Hitzak
soberan
daude!**



zkia

3.789/1

ITXIA:

Egunkaria, azken alea, otsailaren 20an.

BAINA EZ ISILDUA:

Egunero, 1. alea, otsailaren 21ean.

**Eutsi diezaigun
3.790 aleari!**

Egunkaria

**Itxita eta torturatua
GAITZIDURA ETA
ELKARTASUN
ITZELA...**



...EUSKARA ETA
EUSKAL KULTURAREN
KRIMINALIZAZIOA
BILATZEN DUEN
EGUNKARIAren
AURKAKO ERASO
GOGOR ETA ZIKINA-
REN AURREAN.



Edorta Sanz

Araba bixotzian



"KOMUNIKABIDEEK EZ DUTE ARAZOA KONPONDUKO, BAINA KONPONBIDEAK BILATZEN LAGUNDU DEZAKETE"

**Txema Ramirez de la Piscina,
Kazetaritzako irakaslea EHUn:**

leire lpz de aberasturi
argazkiak: edorta sanz

"(IN)KOMUNIKAZIOAREN ATARIAN. Prentsa eta euskal gatazka" liburuaren egilekide Txema Ramirez de la Piscina unibertsitateko irakaslearekin bildu gara egindako ikerketaren edukiaren baitan murgiltzeko asmoz; Petxo Idoyaga lankidearekin batera eta talde zabal baten laguntzaz egindako lana "Al filo de la incomunicación" izenburuaz ere argitaratu da gazteleraz.

Prentsa idatziak euskal gatazkari ematen dion tratamenduaren inguruko azterketa eta proposamena Euskal Herritik kanpo ere helaraztea du xede, errealitatea ezagutu gabe, Euskal Herriari buruzko berriei josita bizi direnak gertatzen denaz hobeto jabe daitezen. Liburua Madrilen aurkeztu zutenean gertatutakoak nahiko ondo laburbiltzen du Txema Ramirez de la Piscinak elkarrizketan azalduakoa: jendearen

interesa piztu zuen, baina komunikabideek ez zioten tarterik eskaini.

Zergatik aukeratu zenuten 1998tik 2001erako epea azterketarako?

ETAren su-etenarekin oso fase polita zabaldu zen, oso garai aproposa zen egunkariak ordura arte bultzatutako aztoramen mediatikoa leuntzeko. Baina espero ez genuena gertatu zen: momenturik egokienean diskurtso politikoa aztoratu zen. Orduan dikotomia ez zen demokrata eta biolentoak, baizik eta konstituzionalistak eta abertzaleak. Ikaragarri bultzatu zen dikotomia hori eta hori da komunikabideei leporatu ahal zaiena. Hedabideak gatazkaren zati dira; ez dira errudun bakarrik, ezta gutxiagorik ere, eta ez dute arazoa konponduko, baina konponbideak bilatzen lagundu dezakete.

Komunikabideen interes ekonomiko-enpresarialeak buruz hitz egiten da sarri azken urteetan, baina interes politikoa horren gainetik dago?

Euskal gatazkak bete-betean jotzen du Estatuaren bizkarrezurra, bere antolaketa zalantzan jartzen duelako. Ez da onartzen hemen bestelako bideak har daitezkeela, Euskal Herriak bere etorkizuna libreki antolatu ahal izatea; hori da oinarri-oinarrian dagoena. Beraz, interes politikoak nagusi dira.

Ez al dago egunkari independienterik?

Nik ezetz uste dut. Objektibotasunaren mitoa aspaldi desagertu da, baina medio eta kazetari bati zintzotasuna eskatu ahal zaie: egari zor zaion errespetua mantentzea, iritzia eta informazioa modu zakar batean ez nahastea, bertsioak kontrastatzea, eta kode etiko eta deontologikoak errespetatzea. Eta hori da gaur egunero-egunero egiten ez dena.

Baina enpresen interes politiko-ekonomikoak kontuan hartuta, kazetariari ezer handirik eska dakioko?

Gizaki indibidual bezala zerbait eskatu ahal zaio, baina badakigu ezin direla heroiak izan, bere enpresak diotenaren kontra egiten badu kalean egongo delako. Subjektibotasuna guztiz zilegi izanda



“prentsarentzat horren garrantzitsua den euskal gatazka jendearentzat ez da lehen mailako kezka”

“bakerako kazetaritza da egiten den proposamena”

ere, zintzotasunarekin lan egitea eskatzen diogu guk.

Euskal Herrian prentsa asko kontsumitzen da, zer esan daiteke kontsumo horren inguruan?

Hedabideek eragin handia dute, baina eragin hori ere bere neurrian hartu behar da. Adibidez, Euskal Herrian gehien kontsumitzen den prentsa konstituzionalista, espainolista edo ez abertzalea da; aldiz, bozketetan boto abertzalea nagusitzen da. Hor iritzi mediatiko eta publikoaren arteko haustura bat dago, nire ustez oso positiboa dena gainera, jendeak irizpide propioa baduela adierazten duelako.

Haustura hori aztertzen al du iritzi publikoa ikertzen duen liburuaren atalak?

Tarte hori oso interesgarria da, frogatzen duelako, esaterako, El Correo irakurtzen duen jendeak ez duela bat egiten bere ildo editorialarekin; Diario de Navarra-ko irakurleen heren batek, adibidez, ondo ikusten du autodeterminazio eskubidea; Gara-ren irakurleei lbarretxeren Gobernuaren inguruan galdetu zitzaizenean gehiago ziren ondo baloratzen zutenak gaizki baloratzen zutenak baino. Haustura hori handiagoa da egunkari ez abertzaleetan, baina guztietan gertatzen da eta oso interesgarria da, askotan oso irakurketa sinplistik egiten ditugulako: horrelako egunkaria irakurtzen duena halakoa da. Eta hori ez da egia. Gainera hiritar gehienek kezka nagusiak lana, familia, eta abar dira, eta prentsarentzat horren garrantzitsua den euskal gatazka jendearentzat ez da lehen mailako kezka.

Eta, oster, kezka nagusiek oso leku gutxi okupatzen dute egunkarietan.

Oso interesgarria da ikustea nola erabiltzen den euskal gatazka agenda mediatikotik beste gai garrantzitsuak bigarren mailara eramateko. Prestige-en kasuan oso nabarmena izan da: berehala ETako presoen kartzela zigorrak gogortzeko legea atera zuten.

errealitatea ezagutu gabe, Euskal Herriari buruzko berriei josita bizi direnak gertatzen denaz hobeto jabetzea ere bilatzen du liburua



“askotan oso irakurketa sinplistik egiten ditugu: horrelako egunkaria irakurtzen duena halakoa da”

Baina beste askotan ere hori gertatzen da: zenbat pertsona hil dira bost urte hauetan Gibraltarreko itsasartean? ETaren indarkeriaz baino askoz ere gehiago! Eta terrorismo domestikoa deitu den horrek iaz 60 emakume baino gehiago hil zituen. Oso fenomeno ezberdinak direla badakit, baina desoreka nabarmen bat dago.

Liburuak azterketa egiteaz gain, proposamenik egiten al du?

Bakerako kazetaritza da egiten den proposamena. Gure ustez hitza desarmatu behar da eta arrazoiak indartu, hori da gure azken gogoeta. Gauzak dauden bezala nekez lortuko dugu aurrera egiterik, eta distentsiorako eta solasarako eremu irekiak zabaldu behar dira. Gizarte zibilaren erreakzioa erabat beharrezkoa da. ●

(in)komunikazioaren atarian prentsa eta euskal gatazka petxo idoyaga txema ramirez de la piscina

“Aspaldi honetan, euskal gatazka jaun eta jabe bilakatu da hedabide guztietan: albis-tegietan izarra, irati-telebistan eguneroko hizpide eta kazetetan gai nagusia da. Paradoxikoa bada ere, horrenbesteko informazio-fluxuak ez du komunikazioa ahalbidetu eta euskal auziak, maila askotan bederen, ezezaguna izaten jarraitzen du. Liburu hau euskal gatazkarekiko trataera informatiboaz inoiz egin den ikerketa akademikorik handienetik sortua da. 1998-2001 urtealdi zalapartatsuan egindako lanaren emaitza duzu hau, EHU-UPVko ikerketa zabal batek egin duen ikerketa sakona: Espainian zein Euskal Herrian erreferentziatzat hartzen diren 11 egunkari hartu dituzte (1.500etik gora ale), baita CIES enpresak egindako iritzi-azterketa zabaletik -3.000 inkesta estatu osoan- ateratako ondorioak ere.

Egileek ustez, une honetan bizi dugun egoera mediatikoa benetan larria da. Gehiago ere esan daiteke: bide beretik jarraituz gero, inkomunikazioaren atarian egon gintezke.”

JOSEINA ETXEBERRIA, Euskadi Gaztea-ko kidea:

“Disko Festan ahalik eta ikuskizun indartsuena ematen saiatzen gara”

edurne begiristain

argazkiak: euskadi gaztea

- Disko Festaren historia kontatuko al diguzu? Nolakoak izan ziren musika festa honen lehen urratsak?

Duela urte batzuk Eskola Publikoak antolatutako festa bat egin zuten Bilbon, eta Euskadi Gazteari deitu egin zioten, arratsaldean eszenatoki gainean diskoak jartzera animatzen ote ginen galdetuz. Niri proposatu zidatenean, zalantza batzuk sortu zitzaizkidan jarri behar nuen musikaren inguruan. Irratiko lankideek irratiko musika jartzeko esan zidaten, baina pentsatu nuen gauza bat zela jendeak irratia entzutea, eta beste gauza bat diskoak ipintzen egotea. Orduan, euskal talde batzuekin batera, musika dantzagarria, tinba, latino, eta halakoak eraman nituen. Eta hain justu, musika mota horrekin egin zuen dantza gehien jendeak. Orduan ohartu nintzen Disko Festan funtzionatzen zuena musika estilo hori zela, eta hala funtzionatu dugu gaurdaino.

- Horrenbeste arrakasta lortzea espero zenuten?

Ez, ez genuen halako erantzunik espero. lazko maiatzetik urtea bukatu arte berrogeitik gora ikuskizun eskaini ditugu. Jendea asko animatzen da, orokorrean jende piloa etortzen da, eta egia esan, asko animatu gara.

- Zeintzuk dira Disko Festaren osagarriak?

Ikuskizunak bisuala izan behar duela argi dugu, eta horregatik bi dantzari ditugu taula gainean, Ainara eta Jon. Dantza egin, jendea dantzan jarri eta pausoak erakusten dizkiete. Gure xumetasunaren baitan ahalik eta espektakulu indartsuena ematen saiatzen gara. Ahalik eta gehien mugitzen ahalegintzen gara, momentuko kantuekin, euskal kantuekin... Halaxe osatzen dugu Disko Festa.

- Zein eratako jendea joan ohi da Disko Festara, gazteak bakarrik?

Euskal Herriko aurpegi eta ahots ezagunetarikoa da Joseina Etxeberria, bai bederen musika munduan. Irrati eta telebistaz gain, taula gainean ere ikus dezakegu Disko Festarekin Euskal Herriko txoko guztiak dantzan jartzen. **HILAREN 21EAN GASTEIZA ETORRIKO DA DISKO FESTA,** Gauekoak-en eskutik, udaberriari ongi etorri berezia emateko. Aurretik, GEUekin egon da.





Orduak eragina dauka. Gauean batez ere gazte-jendea dago. Arratsaldeko saioetan, ostera, jende gaztetxoagoa egoten da, haurrak eta gurasoak. Horren arabera ere musika aldatu egiten dugu. Esaterako, elektronikoa, tinba eta abar arratsalde partean gutxiago jartzen ditugu, jende horrengana nagiago iristen delako. Gau partean, ordea, tinba eta rocka errazago iristen dira. Baina batez ere, guk jende gazteari zuzendutako produktu bat egiten dugu.

- Emanaldi bakoitzean disko sorta aldatzen duzu? Zeren arabera aukeratzeko dituzu kantak?

Bloke antzeko batzuk prestatzen ditut. Lehenbiziko kantua jarri bezain pronto, jendearen erantzuna antzematen da, eta beste estilo bateko abestiak jartzeko arrastoa ematen dizu. Alegia, jendeak berak esaten dizu nondik jo behar duzun. Hori bai, mundu guztiak eskatzen dituen kantuek ere badira, horiek ez dute sekula huts egiten.

- Zeintzuk dira azken boladan jendeak gehien eskatzen dituenak?

Azken aste hauetan arrakastatsuenak Kate Ryan-en 'Desenchante' abestia izaten ari da. Sin Chang-en kantak ere kriston arrakasta izan du udazken partean, baita David Bisbalek ere,...; espero ez

duzun herri txiki eta euskaldunean ere Bisbal fenomeno joaten da.

- Euskadi Gaztean, ETBn, eta Disko Festan ikusten zaitugu..., eguna neka-neka eginda bukatuko duzu.

Beno..., egia esan, egiten dudana bizi egiten dut. Musikaren inguruko kontuak gustura egiten ditut. Momentuz ongi daramat. Onartzen dut oso gogorra dela, eguneko 24 orduak ematen baititut horretan, baina musika munduak lotzen nau; gorputz nekea sumatzen dut, baina animoa ez dit erabat jan oraindik. Hemendik urte batzuetara seguru asko ez naizela gai izango hau egiteko, beraz, orain egiten ez badut...

- Disko Festan bizi izandako bitxikeria edo anekdotaren bat izango duzu...

Bai..., behin Durangon, audioko proba batzuk egitera joan nintzen eszenatokira, eta eszenatokiarenean atzetik nihoala, aurreko eskaileretatik hiru gazte ikusi nituen korrika eszenatokira sartzen kaskasoil batzuk buruan jarrita zituztela. Aurrez aurre ikusi eta ni imitatzen ari ziren. Ea zertan ari ziren galdetu nien, eta beraiek: "Barkatu!, zure jarraitzaileak gara eta zu imitatzen ari ginen argazki batzuk ateratzeko". Barre galantak bota nituen, eta gero eszenatokira igotzera gonbidatu nituen.



Beste behin, Ordizian, ekipoa montatu eta afaltzera joan ginen. Alkoholik edaten ez dudanez, ur askotxo edan nuen. Taula gainera igo nintzenean, saltoka hasi eta kriston pixagura sartu zitzaidan. Eta beno, barkamena eskatu eta hor utzi nituen jarraitzaileak une batez, nire zain. Halakoak ere gertatzen zaizkit eta!●

udalaren ustezko euskara p

josune velez de mendizabal

"BALDINTZAK DIRELA ETA, PROZESUAN EZ DUGU PARTE HARTUKO"

Gasteizko Udalak 2002ko urtearen erdi aldera "Euskararen Normalkuntzarako Plana" osatzeko asmoa publikoa egin zuen. Ordutik planaren nondik norakoak zirriborro xume batean geratu diren heinean, euskalgintzako eragileek sasiegitasmo honen inguruko kexak eta zalantza jarrera azaldu dituzte. "Udaleko Euskara Zerbitzuko langileekin bildu garenean informazioa besterik ez zaigu eman, baina inoiz ez zaigu planaren inguruan eztabaidatzeko aukerarik eskaini". Euskalgintzaren ustetan, Euskara Plana benetan eraginkorra izan dadin euren partehartzea beharrezkoa ikusteaz gain, planaren oinarriak orokorregiak eta zehaztaperen faltakoak dira. Ondorioz, eta tartean susmo txarra hartzen diotela kontuari, euskalgintzako eragileen erabakia honako hau dugu: "planaren osaketan ez dugu parte hartuko, eta onartuko den planari ez diogu gure babesik emango".

-ZEHATZAPEN EZA:

Ustezko Euskararen Normalkuntza Plan hau aurrera eramateko Udalaren aldetik zehaztaperen eza nabarmendu da: helburuak, epeak, diru baliabideak, giza baliabideak, eragile desberdinen parte hartzeko aukeretan, etab. "Handinahi gabeko plana da hau, zenbakiak besterik ez dira ikusi behar: Ingurumena, 105 langiletatik 4 plaza elebidun; Musika eskolan, 23 plazatik 5; Kiroletan, 89tatik 27; Gizartegintza Saila, 271etatik 52; Etxebizitzan, 165etatik 10. Erritmo honetara udal administrazioa 3.025. urtean izango da elebiduna".

BEIRATE ESTUDIOA
Txikita kalea, 1
Tfno. 945 14 64 10
GASTEIZ

HEGOALDE
Euskalategia
Matrikula zaitetz !!
Jose Lejarreta 9 behea
Tfnoa 945 28 41 96
01003 GASTEIZ

Bacalao Giraldo

• Eguneko makailu gesaldua
• Makailua eramateko prest
• 36 errezeta ezberdin

ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta
erosotasuna zure esku"

Angulema kalea, 2 - Tfnoa: 27 23 25
Basoa kalea, 6 - Tfnoa: 22 16 36
Gorbeia Merkatua - Zaldieran plaza
GASTEIZ

SARU
Zure arropa eta oinetakoa!!
www.sarudenda.com
Kutxillera, 27 • Gasteiz • 945 260 710

BARRAL
TABERNA
JANTOKI
BEGETARIANO
SAN FRANCISCO XABIERKOAREN KANTOLA, 4
01001 - GASTEIZ
TEL - 945 27 65 33

Plana aurrera???

EUSKALGINTZAREKIN BILDU NAHI EZ IZANA:

"Guk idazki bat osatu dugu Euskara plana benetan eraginkorra izan dadin beharrezkoak diren neurriekin, eta prozesu horretan guk parte hartzeko beharrezkoak ditugun bermeekin. Idazki hau aurkezteko udal talde guztiei eta Echevarria zinegotziari bilera bana eskatuta, soilik Batasunak eta PSEk erantzun digute; PNV-EAN bilera eskatu eta bi hilabetetara erantzun dute; eta ez PPK, ez UAK, ez EBK ez dute gurekin bildu nahi izan".

-HAUTESKUNDEETARAKO PLANA:

2003ko aurrekontuetan plan honi inolako diru esleipenik egin ez izanak Udalaren benetako asmoen inguruan zalantzak sortu ditu euskaltzaleen artean: "Honi gaineratzen badizkiogu ustezko Euskara Plan hau bultzatu nahi duen Udal Gobernu berberak aurreko hiru urteetan euskararen aurka egin dituen erasoak, eta hilabete gutxi barru udal hauteskundeak daudela, Plan honek asmo elektoral hutsak ez ote dituen zalantza sortzen digu".

Beraz, egoera honen aurrean Gasteizko talde euskaltzale desberdinek (AEK, IKA, GEU, Bagare, Denon Eskola eta Euskal Herrian Euskaraz) deliberatutakoa honako esaldi hauetan laburbiltzen da: "Euskararen Normalizazio Plan onargarria eta eraginkorra egiteko Udal Gobernutik gutxieneko baldintzarik eskaintzen ez denez, onartuko den ustezko Euskara Plan horri gure babesa ez diogu emango". Hala eta guztiz ere, Gasteizen benetako Euskararen Normalkuntzarako Plana abia dadin eta euskarak behar dituen beste hainbat neurri har daitezen, lanean jarraitzeko konpromiso irmoa hartzen du Gasteizko euskalgintzak.

Gasteizen benetako Euskararen Normalkuntzarako Plana abia dadin eta euskarak behar dituen beste hainbat neurri har daitezen, lanean jarraitzeko konpromiso irmoa hartzen du Gasteizko euskalgintzak



eUSKALDUNON
denbora-pasa
eta hitz jokoen
hilabetekaria

12 ale ~~36€~~
urtean **30€**



HARPIDEDUN izan nahi dut

ZOZKETA MUNDIALA HARPIDETZEN ARTEAN 2003KO MARTXOAN

DEITURAK:	
IZENA:	
HELBIDEA:	
	P.K:
HERRIA:	LURRALDEA:
TFNOA:	SORTEGUNA:
POSTA E:	

Ordainketa mota:

☐ Txekea ☐ Kontu korrontea

Titularra:

Ipar E.H.:

Ipar E.H.:

LUMA, O.E. - Istillaga plaza 2 behe. - 20304 IRUN (Gipuzkoa)
Tfnoa: (0034). 943 62 95 64 - 943 63 08 83
E posta: lumazorrotz@infonegocio.com

publizitatea

**Floridako
altxorra !
35**

altzariak • apaindurak • Florida, 35 - Tfnoa: 25 93 59 • GASTEIZ

ERROTA
HORTZ KLINIKA

Julian de Apraiz, 1 - GASTEIZ
Tfnoa. 945 213 390 • Faxe. 945 213 390
e-mail: errotadental@euskalnet.net

PLATER MIMATUAK...
EZ ZAITEZ GERA GURE KARTA
ETA MENU BEREZIA DASTATU GABE!!!

Jatetxea - Taberna

"EL CLARETE"

Unai eta Patsi Fernandez de Retana
Zerkabarren kalea, 18 • GASTEIZ
Telefonia: 945 26 38 74

Zure begiak, gure kontu

PROFESIONALITASUNA ETA ZERBITZUA

Aditurik onenek eta azken-azkenengo teknologiak bakarrik berma dezakete ongi egindako lana. Zerbitzu osoa, norberaren neurrira, hurbila eta saiaturia.

Horixe duzu gure konpromisoa.

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza
Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
GASTEIZ

Garagardotegia

Ostiral arratsalde,
larunbatetan eta
igandeetan
IREKITA

Gerentzia
berria

La Blanca

* Oilasko
erreak

* Kazolatxoak

**UKONDO
ERREA
DAGO**

Tfnoa. 945 27 90 46
Herrandarren kalea, 82
Gasteiz



leire lpz. de aberasturi

argazkia: edorta sanz

Aspertzeko denbora handirik ez du izango Jokin Sanzek: asteburuetan amari Alaba Jeneralaren kaleko egunkari-dendan lagundu, eta musikarako tarteren bat atera behar. Irribarre zabal batez egon ohi da dendan -baita larunbat goizetan ere-, agure, atso, heldu eta haurren esanetara, aukera duen guztietan euskaraz hitz egiten. Zein adeitsua den ama aurpegiaz esaten dioten emakumeek agian ez dute rock gogor talde batean jotzen imajinatzen, baina Jokin Kaos Etiliko-n aritutakoa da eta egun "Silik on adi" taldeko kidea da. Musikarako jaioa dela aitortzen du, eta gainera bere biziorik handiena horixe dela dio. Euskararen, euskal kulturaren eta euskaltasunaren garatzea du kezka handiena, eta biztanle orok euskara ikasteko ahalagina egin dezan nahiko luke, euskaltasunez bizi eta euskaldun bezala gara gaitezen.



JOKIN SANZ, EGUNKARI-SALTZAILE ROCKEROA

Duzun biziorik handiena?

Musika.

Eta bertutea?

Pazientzia.

Zer eskatzen diozu bizitzari?

Ahalik eta zoriontsuen izatea.

Zerk ateratzen zaitu zure onetik?

Telebistan ikusten ditugun gauzek, gerrateek eta politikariek orokorrean.

Geu Elkartea eta Geu aldizkariaren berririk bai?

Aldizkaria ezagutzen dut.

Egunkari bat?

Euskaldunon Egunkaria eta Arabako Egunkaria, geureak.

Telebistako saio bat?

ETB1 eta ETB2 ikusten ditut gehien,

edozein programa.

Film onen bat?

"La mano que mece la cuna".

Jaki gozoren bat?

Edozein frijitu, kroketak adibidez asko gustatzen zaizkit.

Eta batere gustatzen ez zaizuna?

Bakailaoa, nire fobietako bat da.

Oporrak non eta zertarako?

Mendian pasatzen ditut gehienbat, oso gustuko dut mendia.

Liburu bat?

"El nombre de la rosa".

Zein musika atsegin duzu?

Rocka.

Munduan den denbora guztia izanez gero, zer egingo zenuke?

Mendira joan eta gure ingurumena-rekin disfrutatu.

Gasteizen biziko ez bazina, non?

Inguruko herriren batean.

Gasteizek duen onena?

Giroa. Gasteizen giro zoragarria daukagu, beste hiriburu askotan ez daukate aukeratzeko dugun posibilitatea.

Eta txarrena?

Politikariak agian.

Euskaraz bizi daiteke Gasteizen?

Zaila da, baina bai.

Gustuko koloreren bat?

Urdina.

Gorputzeko atalik politena?

Begiak.

MARTXOAK 3. 1976:

GASTEIZKO
IREKITA

1976ko martxoaren 3a. Espainiako poliziak bost langile erahil eta ehun baino gehiago zauritu zituen Gasteizen, horietako 20 oso larri. Egun horretan, greba orokorra deituta zegoen. Deialdiak erantzun zabala jaso zuen eta hiria erabat gelditu zen. Arratsaldeko bostetan batzarra antolatuta zegoen San Frantzisko elizan, Zaramaga auzoan. Bost mila lagun baino gehiago elizan bildu ziren. Polizia kanpoan zegoen. Tiroka ateratzen zituzten. **Pedro Maria Martinez Ocio** (27 urte) eta **Francisco Aznar** (17 urte) han bertan hil ziren. **Romualdo Barroso** gaueko 11etan zendu zen. **Bienvenido Perea** (30 urte) eta **Jose Garcia Castillo** (32 urte) egun batzuk geroxeago hil ziren.

Gertaera lazgarri horiek Gasteizko eta Euskal Herriko langileen borrokaren adierazle dira. GEUK jazoera horiek lekukotzen bitartez gogorazi nahi izan ditu. Hauetxek dira gertakari horietako lekukoen hitzik adierazgarrienak:



"ikaragarria izan zen. Kanpoan
15.000 pertsona inguru zeuden,
eta elizaren barruan 5.000 inguru"

**JESUS NAVESen (langile-burua)
HITZAK HILETA-ELIZKIZUNETAN
(martxoaren 5ean)**

"Lankideok! Bi langileen izenean eta Gasteizko herriaren izenean irakurriko dudana irakurri baino lehen, bi gauza ohartarazi nahi ditut. Lehena da, hona etorri garen asko otoi egitera etorri garela, baina baita biltzeko dugun bide bakarra delako ere. Une hau aprobetxatu beharra daukagu, kontsigna batzuk finkatzen jarraitzeko, borroka hau hasi genuenean arazoa zilegia zela uste genuelako, eta hala pentsatzen jarraitzen dugulako eta hala pentsatzen jarraituko dugulako bukaera arte".

"Bigarren oharra senideei zuzenduta dago. Langile hauen senideak pairatzen ari diren samina, azaldu ez daitekeen samina, ulertzen dugu. Baina esan nahi diegu anaia horiek gureak ere badirela, hildako hauek gure hildakoak badirela, Gasteizko herriarenak direla!".

"Ekitaldi honetan agerian geratzen ari da soil-soilik jabe multzo bat, gutxi batzuk, direla maitasun eta batasun honetatik at geratzen direnak".

IRYSTA

poteo eta pintxoak

TABERNA

Mateo Moraza 19
Tfnoa: 945 23 19 33 GASTEIZ

ESPEZIALITATEA:

Patata tortila • Otartekoak

ITYRRIETA

Sagardotegia

**OSTIRALETIK
IGANDERA IREKITA.
ASTEAN ZEHAR
ENKARGUEN BIDEZ.
ASTEBURUETAN:**

HAMAIKETAKOAK ETA MERIENDAK

Arraga auzoa.

Tfnoa: 945 44 53 85 - ARAMAIO

greba orokorrerako deialdiak
erantzun zabala jaso zuen eta
hiria erabat gelditu zen



ZAURIAK DARRAI



**"kanpoko jendearen
kontra kargatzen hasi
zirenean, mikrofonotik
elizako jendeari lasaitzeko esan zitzaion,
barrura ezin zirela sartu esanez..."**

"Gehiegikeria honen arduradun bakarra jabe multzo hori da, baita aginduan daudenak ere, beraien aginduak bete baitituzte".

"Hilketa hauen arduradunen kontrako herri-epaiketa bat aldarrikatzen dugu! Ardura duten agintarien berehalako dimisioa eskatzen dugu! Herriak, aurreneko egunetik hasita, eskuak poltsikoetan izan ditu. Erantzule bakarrak ordena publikoko indarrak izan dira. Desegin daitezela eskatzen dugu!"

"Pedro Maria, Romualdo, Francisco, zuen odola ez da alferrik galduko. Zuen hiltzaileak ez dira zigorrik gabe geratuko. Gure askatasunera eramango gaituen borrokan sinetsi duzue. Baliteke bidegabekia den gizarte honen azken biktimak ez izatea, baina guk zuek utzitako zuzia hartuko dugu eta helmugara arte jarraituko dugu".



MARRAZKIAK · KOADROAK

MOLDURAK

LAMINAK

zurbeltz

Madalena kalea, 2 • Tfnoa: 945 13 27 20



Hitza, bihotzaren giltza:

GORA EUSKADI

ASKATUTA!

POLIZIAREN ELKARRIZKETAK

- "Charlie J1-i deika. Badirudi jende gehiena San Frantzisko elizan dagoela. Zer egingo dugu?"
- Jendea badago... erasora jo!
- Baina kontuan izan sakristian sartuko direla.
- Noski, baina oraindik ez ditugu agindu horiek. Hala ere, gauzak dauden moduan ikusita, sartzerik badago.
- Beno, zuk badiozu... Ados?
- Ados.
- Euren aurka jo dezagun!
- Charlie Charlie 1-i. Aterarazi atera daitekeen guztia.
- Jakinaraziko dut.
- Charlie J1-i. Elizan sartzeri noa.
- Ados.
- (...)
- Charlie J1-i. Baimena eskatu, segur aski orain ezer jaurti gabe ezkututuko direlako.
- Ados. Baina zenbat jende dago?
- Ez dakit, oraindik ez dakit. Une honetan inguratzen ari natzaie.
- Beno, hala ere apur bat itxaron ezazu, nagusiarekin hitz egingo dut, ea zer dioen.
- (...)
- J1 J2-ri. Egin ezazu esandakoa. (Zaramagara joatea Charliri laguntzeko)
- Hemendik alde egiten badugu, elizatik alde egingo dute.
- Charlie J1-i. Aizu, ez zaigu interesatzen hortik joatea, bestela elizatik alde egingo dute.
- Elizako atarian aterarazteko



- agindua dago. Jendearekin baldin bazaude, hurbil zaitez eta eliza hustu lehenbizi.
- (...)
- Eliza aterarazten hasi!
- J2 eta J3 hasiko gara.
- (...)
- Onean husten duzue, edo bestela jipoitu.
- Ados
- Errefortzuak bidaliezazkiguzue, bestela ez dugu ezer egiterik; bestela, hemendik alde egingo dugu! Eta apaiz batekin atera dira, baina ez da parrokoa; eta hemen barrura sartu gara, baina hau oso gaizki dago. Bestela, bestela... bestela... bestela armak erabili beharko ditugu.
- J2 eta J3 eliza hustu ezazue, ahal duzuen moduan.
- Ez, ezin dugu hustu, ze... tipoz beteta dago! Tipoz beteta. Eta kanpoaldea inguratuta dugu... Armak erabili behar izango ditugu!
- Eliza gazezta ezazue.
- (...)
- Kosta ahala kosta atera itzazue.
- Ados. Jasota. (...)
- (Tiro hotsak entzuten dira)
- Zer izan dira tiro hots horiek? Airera izan dira?
- (...)
- Zauriturik ote dagoen galdetzen ari nintzen.
- Momentuz, gutako inor ez.
- Beno, beno... ongi da.
- Zer moduz dago giroa hortik?
- Imajina ezazu, mila tiro bota ostean eta San Frantziskoko eliza guztia suntsitu ostean, pentsa nola dagoen kalea eta guztia.
- Baina une honetan kargatzen jarraitzen duzue? Iskanbilarekin segitzen duzue?
- Une honetan, ez.
- Mila esker. Lan ona.
- (...) Historiako jipoi handienak eman ditugu!
- Hemen sarraski bat egon da.
- Ados, ados.
- Aizu, baina benetan, sarraski bat, eh?

MARTXOAREN 3ko BIKTIMA BATEN SENIDEA ESKERRAK EMATEN

"Lagun maiteak, gure familiaren izenean zuen presentzia eta elkartasuna eskertu nahi dizkizuegu. Mila esker denoi. Une tristea da guretzat, heriotz hauek erabat penatuta utzi gaituztelako, baina aldi berean pozik gaude beraien biziak herri langilearen zerbitzura jarri dituztelako. Horrek, justizia eta askatasuna bilatzen jarraitzen lagundu behar digu. Min sakona sentitu arren, mendekua gainditzeko ahalegina egin nahi dugu, eta zuoi edozein gorroto itzal ezaba dezazuela eskatu nahi dizuegu. Eskerrik asko, berriro ere, guztioi. Eskerrik asko".

*** "bost minututan entzuten hasi zen bati balakada bat sartu ziotela besoan; hiru minutu geroago, gutxienez hildako bat zegoela,..."**

ELIZAN ITXITAKOEN LEKUKOTZA

"Bost minututan entzuten hasi zen bati balakada bat sartu ziotela besoan, eta odolusten ari zela. Une horretan kotxe partikular baten hotsa entzun zen, bozina jotzen,

zapi bat erakusten zihoala. Eta hor zihoan lehen zauritua. Hiru minutu geroago gutxienez hildako bat zegoela entzuten hasi zen. Buruan tiro egin zioten gaztea zen eta burua lehertuta zuen. Gerorago, beste bati sabelean tiro egin ziotela entzun zen eta oso larri zegoela...”

“Bostak eta hogeia aldera polizia elizara sartu zen, eta sartu bezain pronto, bonba mota guztiak bota zituen. Gutxi gora-behera hogeia bat gas-pote bildu genituen, baita bala-zorro batzuk ere; kanpotik ala barrutik tirokatu zuten ez dakigu. Une horretan ikara izugarria sortu zen elizan, ez baitzen ezer ikusten, ezta metro gutxitara ere. Jendeak lehioak apurtu zituen, itotzeko arriskua baitzegoen. Nor ahal zuen lekutik ateratzen hasi zen, baina kanpoan ehun bat polizia itxoiten zeuden, iteera guztia inguratzen. Batzuek kolpatzen gintuzten eta tiroak botatzen zituzten. Bada lekuko bat, zeinak elizatik ateratzerakoan, makurtuta zegoela, tiro bat jaso zuen lepoan...”

ELIZAN ITXITAKO EMAKUME BATEN LEKUKOTZA

“Ikaragarria izan zen. Kanpoan 15.000 pertsona inguru zeuden, eta elizaren barruan 5.000 inguru, eta kanpoko jendearen kontra kargatzen hasi zirenean, mikrofonotik elizako jendea lasaitzeko esan zitzaion, barrura ezin zirela sartu esanez... Jendea nahikotxo lasaitu zen, baina bat-batean poliziak atearen kontra gomazko pilotak eta harriak botatzeari ekin zion, gu aterarazi nahian. (...) Barruan geratzea erabaki genuen. Beraien erantzuna ke-bonbak jaurtitzea izan zen. (...) Jendea oso urduri jarri zen. Hartu genuen aurreneko erabakia lehioak lore-ontziekin apurtzea izan zen, arnasa hartu ahal izateko. (...) Jendea ateratzen hasi zen eta poliziak metraileta tiroekin erantzun zuen. Besoetan ateratzen zen jendea edo tente egoterik ez zutenak borrekin jipoitzen zituzten. Gizon bat borra elektriko batekin kolpatu zuten...”



“bostak eta hogeia aldera polizia elizara sartu zen, eta sartu bezain pronto, bonba mota guztiak bota zituen”



IZARRA TABERNA - JATETXEA
BITORIANO - ZUIJA (ARABA) • ☎ 945 430 073

XIXILU JATETXEA
AMARIKA PLAZA, 2
Tfnoa: 945 23 00 68 • GASTEIZ

Obren egite eta zuzentzea
ALTUNA Estudioa
“Azterlanak, Ziurtagiriak, Proiektuak, Lizentziak”
Arkitektura, Barne Diseinu eta Dekorazioa
Florida kalea, 9 beheko - 01005 GASTEIZ
Tfno./Faxa: 945 14 02 17 • Mobilak: 639 81 51 30

RAFA TEJA ATELIER
“Zetazko eta kotoizko ebunak eskuz margotuak”
- ZAPIAK -
Arantza Arregui
Ramiro Maeztu, 1 • Tfnoa: 945 13 33 59

eusko alkartasuna
www.ea-euskadi.com

arabarrok euskarari BAI
www.euskoalkartasuna.org

GA
gasteiz abertzaleak
www.gasteabertzaleak.com

MIKO
Izozkiak



Aitziber

Nerea

Aitziber Porras (1978) eta Nerea Otxoa de Aspuru (1977) gasteiztarak EHU Gaztedi taldeak (Araban kirol honi ekiten dion talde bakarra) dituen 22 emakumezko jokalarietatik hautatuak izan dira, otsaila eta martxo bitartera jokatu den aurtengo "Sei nazio" txapelketan Espainiako Selekzioarekin aritzeko. Nerea otsailaren 16an Galesen kontra aritu zen bitartean, Aitziber Irlandaren kontra aritu zen otsailaren 23an Madrilén. "Esperientzia ikaragarria", bien ustetan.

AITZIBER PORRAS ETA NEREA OTXOA de ASPURU

Espainiako Selekzioan

josune veleaz de mendizabal

argazkiak: edorta sanz eta Gaztedi

Gamarako rugby zelaian astean hirutan ordu t'erdi gogoz entrenatzen duten bi gazteak pozik aritzen dira kirol honetan, eta "ezagutu gabe sartu eta engantxatzen duen zerbait" dela aipatzen dute. Zaleen artean batez ere lagunak eta familia nabarmentzen dituzte bi jokalariek, "zale edo jarraitzaileak ez baitauek", dio Aitziberrek. Nerearen iritziz, "famiaren babesa oso garrantzitsua da. Hasieran amak ez zuen ulertzen nola joka nezakeen horretara, batez ere futbol amerikarrarekin nahasten zuelako; orain, berriz, ez du partida bat bera ere galtzen".

-Noiz eta zer dela eta hautatu zenuten rugbya?

N: Duela 5 urte hasi nintzen ia nahi gabe, ez neukan beste zereginik, iraila hor eskegian dagoen hilabetea da eta duela nahikoa kirola ez nuela egiten; beraz, lagun batzuek animatuta, rugbyari heldu nion, baita engantxatu ere, gaur arte.

A: Ni duela 4 urte hasi nintzen Nerearen erruz (barre egiten du); lehendik ere entzunda neukan eta urtebetez saskibaloia eta rugbya egiten jardun eta gero, azken hau hautatu nuen.

Biak: Egia esateko hasieran zertan zetzan ideiarik ez genuen, ez baita oso entzuna..., baina hasiz gero oso atsegina da eta gainera ez da gainontzeko kirolekin bezala, non txikitatik hasten zaren; bada, aldezturik ezagutzea ez da beharrezkoa hutsetik erakusten dizutelako.

-Interesa duenak non, nola izan dezake taldean sartzeko aukera?

Biak: Federaziora joanda nahikoa litzateke, baina rugbya egiten duen norbait ezagutuz gero askoz ere errazagoa da pertsona berri hori engantxatzea; behin entrenatzera eramanda 'fijo' taldean geratzen dela. Zoritxarrez, gehienak ez dira rugbyaz interesatzen, ez baitara egun batetik bestera

ohetik altxatzen kirol honetan aritu nahi duzula pentsatzen, hortaz, rugbyak nagusiki ahoz aho erakartzen du.

-Rugbyari atxikia 2X2 taldekidearen mitoa existitzen da... Indartsua eta handia izan beharra dago rugbyan aritzeko?

Biak: Ez dituzu baldintza eta ezaugarri zehatz batzuk bete behar inondik inora, hori mitoa besterik ez da. Postu eta toki desberdinak daude etortzen den edonorentzat, hots, azkarra eta txikitxoagoa bazara lerroan jokatu duzu; indartsua eta altua bazara, ostera, aurrean arituko zara. Gainera, oso kirol irekia da, kontuan hartuta 15 lagunek jokatzeko dutela. Hala eta guztiz ere, jendeak ikuspegi hori dauka rugbyari buruz; egia da kontaktuzko kirola dela, baina azken buruan baimendutako kontaktua da eta, beraz, legezkontrakoa den ezer ez da egiten.

-Zertan bereizten da EHU Gaztedi rugby taldearen estrategia?

Biak: Batez ere mele deritzon. Hau da, taldea bi zatitan banatzen da eta, batetik, lerrokoak, azkarak eta arinenak, daude eta, bestetik, handiak eta indartsuenak; azken hauei deritze mele. Ez dakigu estrategia den edo ez, baina gakoa da oso ondo moldatzen garela denok, eta azken batean partida guztion eginahalari esker irabazten da; guztia ematen duzu, ez bakarrik zuek, baizik eta zure taldekideengatik ere bai, beraiek berdina egiten baitute.

- Aitziber iaz Bartzelonan izandako Mundialetan egon zen, baina

Gales-en aurka
otsailaren 16an

Irlandaren kontra
otsailaren 23an
(Madrilen)

Ingalaterra:
martxoaren 9an

Frantzia: martxoaren
23an (Bartzelonan)

Eskozian: martxoaren
30ean

Emaitzak eta
informazio gehiago:
www.ferugby.com

Nerearentzat, aldiz, esperentzia berria izan da hau. Nola bizi izan duzu "sei nazio" txapelketaren esperentzia?

Oso esperentzia polita izan da, lekua eta jendearekin oso pozik egon naiz Galesen; dena den, partida ez zen ondo atera eta 34-0 galdu genuen..., euren jokua oso azkarra izan zen hasieratik eta gu nahiko tentelduta irten ginen zelaira. Bigarren zatian, ostera, entrenatzaileak pilak jarri zizkigun eta indarrez atera ginen, baina nire ustetan ez genuen eman eman behar genuena. Euren fisikoa ere izugarri nabaritu genuen, geurea baino askoz ere landuagoa baitzegoen. Dena den, oso pozik sentitu nintzen minutu batzuetan jokalaria internacionala izateko aukera izan nuelako.



-Jokatzeko orduan elkar ezagutzen ez duzuen neurrian nola adosten da jokua selekzioan?

Asteburua bakarrik izan dugu batera egoteko, eta orduan aprobetxatu dugu entrenamendu pare bat egiteko partida baino lehen. Elkarrekiko lotze falta hori talde sentimenduekin ordezkatzeko, finean elkarrekin arituko gara, eta hiru egunez apenas ezagutzen ez dituzun horiek zure taldekideak dira.●

KEPA ANCIN, entrenatzaile eta selekzionatzailea:

EHU Gaztedi rugby taldea 1977. urtean sortu eta 12 denboralditan lehen mailan mantendu zen talde indartsua dugu, euskal eta espainiar selekzioetan ere arituz. Hastapenetan ez baina handik hamaika urtetara emakumezkoen taldea osatu zen, hau da, duela hamabost urte. Kepa Ancin EHU Gaztedi rugby taldeko zutabeetako bat dela esan daiteke. Egun emakumezkoen entrenatzailea izateaz gain, euskal selekzionatzaile lanetan ere ibilbide luzea darama.

-Gazte hasi zinen rugbyan eta dagoeneko lan desberdinak bete dituzu Gaztedin.

Bai, nire saskibaloiko lagunak rugbyra pasatu ziren eta nik gauza bera egin nuen garai batean; ez naiz batera damutzen. Hamazazpi urte nituela mutilak entrenatzen hasi nintzen arren, hogeita bost urte bete arte jokatzeko jarraitu nuen. Urteekin batera eskarmentua lortzen duzun neurrian zuzentzen eta gidatzen dituzun taldeetara moldatzen zara, eta nire kasuan une honetan Gaztedi, Euskadiko taldea eta Espainakoarekin nabil.

-Ligari dagokionez noa doa Gaztedi?

Egun hirugarren postuan goaz, dena den, nire ustetan postu bat gorago egon beharko genuke.

-Zertan nagusitzen da Gaztedi taldea gainontzeko euskal eta espainiar taldeen aurrean?

Batez ere lagun talde bat dela; harreman pertsonalak oso garrantzitsuak dira rugby bezalako talde baterako. Praktikatzen duguna kontaktuzko kirola da eta dinamikoa izatea bilatzen dugu.


-Rugby eskolarik badago?

Betidanik egon da rugby eskola, garai batzuetan bestetan baina arrakasta handiago izan duena, baina gaur egungo gainontzeko kirolen lehiakortasuna dela bide ez gaude gure sasoi onenean.

-Zergatik aukeratu dituzu Aitziber eta Nerea Espainiako selekzionarako?

Euren postuetan hoberenak direlako eta gazteak direlako.





LABURPENA

3. atalaren LABURPENA. Bikien Kluba. Iban Zaldúa

Mutilak Jon izena du. Biak afaltzera joango dira, neskak hautatu toki batera, hiriaren kanpoko aldean kokatua, Bikien Kluba izenekoa, XVI. mendeko harrizko etxe handi berriztua. Kotxean doaz biak. Jon bere iraganeko une batez oroitzen da, Pablorekin ibili zenekoa. Badirudi neska pazientzia gutxikoa dela; musika kentzen du, Alan Stivell ez baitu gustuko. Irratia geratzen da jarrita, klonazioa hizpide. Jon interesatuta dago gaiarekin, ez ordea neska. Neskak irratia amatatzen du. Ixiltasun kolpe bat kotxean, eta

neska berriro hasten da hizketan. Heldu dira Bikien Klubera, aparkalekuan beste bi auto besterik ez daude. Barruan sartu, mahai txiki batean jarri, eta Jon kotxera doa berriro tabakoaren bila; kondoi bat ere badaezpada hartuko du kotxetik. Victorrek utzitako maleta hor dago: tentazioari ezin eutsiz, atzeko aldera pasa eta maleta irekitzeari ekiten dio, baina barrukoa ikusteko astirik emateke, auto berdea ikustatzen baitu bertako haritz biluziaren ondoan aparkatua. Txiskero bat piztu da auto berdean, une txiki batez aurpegi bat argiztatu du: jatetxe barruan dagoen neska beraren aurpegia da, edo oso antzekoa, behinik behin. Berari begira, antza, zigarroa piztu bitartean.



RIKARDO ARREGI DIAZ DE HEREDIA

4. "afaria"

Jatetxera sartu da azkar Jon, baina ez doa mahaira zuzenean, komunera baizik. Komunak lasaigarriak iruditu zaizkio betidanik Joni, bebesleku bat. Komunetan gauza asko egin daiteke. Erabakiak hartu, tartean. Txiza gozo-gozo egiten duen bitartean erabaki irmoak hartzen hasten da. Bai, galdera batzuk egin behar dira hemen ezer baino lehenago, zeharka, modu finean noski, baina galderak behar dira hemen, eta erantzunak. Ispiluan ikusi du bere burua eta gustatu zaio ikusi duena, irmotasunak ederrago egiten du.

Eserj denean, atera begira, irmotasun tasak jaitziera nabaria

izan du. Neskak irribarre intimoena egin dio ezpaineekin eta, lehen aldiz, begiekin.

Karta ez da oso luzea baina platerren izenak bai. Jonek ez du gogorik irakurtzeko eta neskari uzten dio aukeratzeko lana.

- Nire kontu, ikusiko duzu.

Jon ardoen zerrendan galtzen da. Ardo beltz on bat edatea beste babesleku bat da. Zerbitzaria joan bezain laster esaten dio neskari serio:

- Zure lagunak, Victor horrek, maleta utzi du nire autoan.

Maleta nirea da, esan du neskak,

edo maleta niretzako da. Jonek ez daki ongi entzun duen. Agian bi esaldiok esan ditu. Agian beste bat. Ez daki zeren galdu baita neskaren irribarrean, eta begietan, eta mugimenduetan eta hitzak bigarren plano hurrin batera joan dira bera ohartu gabe.

Zerbitzariak apurtu du eternitate txiki hori platerrekin. Platerak ez dira biribilak eta letxuga ez da berdea. Hor dagoen autoa bai, pentsatu du Jonek haserre, amorrazioz beteta. Jon nazkatuta daukate biribilak ez diren platerrek, berdeak ez diren entsaladek eta neska horren irribarre sorginduek. Pablo etorri zaio gogora, eta gero ➤

arraultze frijituak astegunetako afari haietan.

Janariaz hitz egiten dute, sukaldariez, produktu ekologikoez, proteinez, sukaldaritzaz berriaz, janari azkarrez, jatetxe txinatarrez eta, azkenik, ama maiteen betiko janari gozoez. Jon, ardoaren zaporean galdurik, edo babesturik, ate bat ikusi du bere aurrean. Noski, amak, familiak, noski.

Postreetako platerak biribilak dira, bai, baina oso-oso hañdiak eta goilareak are handiagoak, eta astunak. Jonek pentsatzen du bere amonaren etxean bakarrik ikusi zituela txikitan horrelako goilare handiak, baratzuri zopa jateko erabiltzen zirenak. Jonek ez du maite baratzuri zopa.

- Nebarik edo ahizparik al duzu?- Jonek uste du galdera behar den unean egin duela, amonarena eta hiruzpalau istorio kontatu eta gero.

Neskak, irribarretsu, zerbait esan du amonei buruz edo senidekoei buruz edo agian, Jonek ez daki, ahizpei buruz. Ez daki zeren galdu baita neskaren irribarrean, eta begietan, eta

mugimenduetan eta neskak eskua jarri dio eskuaren gainean, hor mahaian bertan, Jonek eskubia eta neskak ezkerre, eta neskaren eskuak hartu dio erpurua eta laztandu du gora eta behera leun-leun.

Zerbitzariak apurtu du eternitate handiago hori kafeak ekarri dituenean. Maleta, auto berdea, beste neska hura, pentsatu du Jonek haserre, amorrazioz beteta. Bi eskuak ari da erabiltzen marlboro light bat pizteko. Jonek pentsatzen du neskak une batez eskua, eta batez ere erpurua, bahitu egin diola. Eta jadanik ez dakit neska horrekin larrua jo nahi duen ala ez.

Sarrerako atea ireki da eta Jonek, harriturik. auto berdean zegoen neska ikusi du sartzen. Auto berdeko neskak Victor horren maleta darama eskuan (nola ostia...!) eta irribarretsu hitz egiten dio zebitzari bati, betidanik ezagutuko balu bezala. Bi nesken aurpegiak berdin-berdinak dira, orrazkera ez hainbeste, eta jantziak erabat diferenteak. Bikien kluba, noski. Jon bat-batean konturatu da beste bi mahaletan bikiak daudela afaltzen, bi bikote. Asun,

berarekin afaltzen ari den neska (Asun, Asun, Joni ez zaio izena gehiegi gustatzen), despistaturik egon da hoguei segundoz edo. Baina Jonek lerdo aurpegiak jabetzean buelta eman du. Joni iruditzen zaio Asunen eskuak, segundo batez, mugimendu arraro bat egin duela hor mahaian bertan urduriak sortua, baina ez dago seguru.

Asun altxatu egin da eta sartu berri denarengana doa Jon bakarrik utzirik. Joni irratian klonazioaz entzun duena etorri zaio burura.

© Rikardo Arregi eta Geu aldizkaria

Udaberria

euskaltegia

- Euskaltegi Homologatua
- Helduentzat
- Ume eta gaztetxoentzat
- Musika eskola
- Dantza

Uruguai kalea, 9 - Tfnoa: 945 24 49 65
Abendaño kalea 48 - Tfnoa: 945 22 34 33

Zure denda erotikoa

SEX

Sexua
euskaraz
bizi

**PITILIN
GORRI**

GASTEIZ
Tren geltokiaren ondoan
Tel: 945 15 42 60

DONOSTIA
OIA RTZUN

BAR KLAKÉ

KUTXA, 2
TFNO.
143883

GASTEIZ

ARANBIZKARRA ZURE

AUTOESKOLA!

Valladolid kalea, 16
Tfnoa.: 945 28 28 39
01002 Gasteiz

Xabier taberna

musika ona
eta giro ezin hobea
Aiztozile kalea (KUTXI), 23

UZTINTZA
KERAMIKA TAILERRA
**KERAMIKA HERRIKOIA
ETA BERRIA**
HEDEGILE kalea (Korreria), 120
Tfno. 670 326 999 • 01001 GASTEIZ

azkarprint
Imprenta / Inprimategia
S INPRIMATEGIA S
Landazuri, 7 - 945 23 30 01 - GASTEIZ

MARTXOA

EGUNKARIAREN
ITXIERAren kontrako ekimen
eta deialdi guztietan parte
hartzeko deia egiten diegu
irakurle guztiei!

KORRIKA KULTURALA, korrika-rako deia, abian jarri da
otsailaren 27tik aurrera (ikus. kontrazala). Korrika 13. Maule-
lruñea. Apirilaren 4tik 13ra. Gasteizen, apirilaren 10ean,
arratsaldeko 7.00etan. Leloa, aek-rekin herri bat geroa lantzen

ARABA EUSKARAZ-en kultur
egitaraua: ikus. kontrazala

Egunkaria

3
GEUJIRAN, geu elkartea
eta geu aldizkariaren irratsaio
berri, fresko eta bizia.
23.30etatik 24.00etara, Radio
Vitoria-n

4
Parral, astearteetako
ekitaldia. 20.30etan:
Geu elkartearen eskutik,
Kultur Errota & Korrika
Kulturala: Buhamiak ipuin-
kontaketa

6
Marea bizia-kanpaina:
Galiziara, martxoaren 6tik aurrera; eta Euskadiko kostaldean unean-
uneko beharren arabera, garbiketa-lanetan lagundu nahi duten
boluntarioentzako poltsa irekitzeko asmoa dago. Txangoak
egunbetekoak izango dira, larunbat nahiz igandez. Informazioa: ERDU,
945161687, edo 010era deituta

8
EMAKUMEAREN EGUNA. Manifestazioa.
Adi martxoak 8-ko egitarauari (otsailetik abian);
-**Martxoaren 8an:** kultur-ibilbidea (goizeko 10.30etan),
emakumea eta boterea (Martxoak 8 Koordinakundea-
Berdintasunerako zerbitzuak antolatua). Izen-ematea:
1etik 7ra. Informazioa: Udaleko Turismo Bulegoa -ikus.
martxoak 12 eta 13

11
Parral,
astearteeta-
ko ekitaldia.
20.30etan

12
MARTXOAK 8.
Mahaingurua: Mujeres de
otras culturas (Martxoak 8
Koordinakundea-
Gizarterako Elkarreak
antolatua). **19.30etan,**
Goiuri jauregian

13
MARTXOAK 8.
Hitzaldia: Feminismo y
democracia participativa
(Martxoak 8 Koordina-
kundea - Maria de Maeztu
Forum Feminista-k
antolatua). **19.30etan,**
Goiuri jauregian

Egunkaria

14
GAUEKOAK. 22.00-0.00.
Txalaparta (lantegi irekia). EUSKA-
RAZ. Aldabe.
Informazioa: Kulturama.
945-141060 edo gauekoak@gauekoak.org
www.gauekoak.org

15
GAUEKOAK & GEU.
Aldaben, 22.30etatik
24etara: Bentri-magik (Elvi
sabeliztuna eta Marsel
magoa) + Itziar Rekalderen
narrazioak ("Ez sufritzeko
erremedioak")

16
Geurekin mendi-
ra: Puttarri (1299).
Informazioa:
945132758 (Txipi).
Irteera: Lovaina
plazatik, goizeko
9.00etan

18
Parral,
astearteeta-
ko ekitaldia.
20.30etan

21
• **GAUEKOAK:** Udaberriko 'kontzertua': EITBren
DISKO-FESTA JOSEINA ETXEBERRIArekin, Plaza Berrian,
21.30etan
• **IKAKO UDABERRIKO JAIA**
9:00etan **TXOKOLATE-JANA & KANTAK**
10:00etan **ZIRRARAK DIAPORAMA XABIER ERRAS-**

TIREN ESKUTIK, ALDABE GIZARTE ETXEAN
MENDIOLARAKO BIZIKLETA MARTXA: 10:00etan
EUSKALTEGIETAN, 10:30etan UNIBERTSITATEKO CAM-
PUSEAN. 11:30etan MENDIOLAN, 15:30etan **TARTA**
TXAPELKETA EUSKALTEGIETAN, 18:00etan **ZIRRARAK**
DIAPORAMA XABIER ERRASTIREN ESKUTIK, ALDABE
GIZARTE ETXEAN, 20:00etan BARRIKOTEA & PATATA-
TORTILA TXAPELKETA, EUSKALTEGIETAN, 21:30etatik
AURRERA TRIKI POTEOA ALDE ZAHARREAN

24
KOLDO MITXELENAK, ikastetxeari topagune
izaera ere emateko helburuari helduz, kalitatezko
kultur ekitaldiak antolatuko ditu, interesgarriak eta
erakargarriak. Egitasmoa iraunkorra izango da, eta
ikasturte bakoitzeko hiru bat ekitaldi gauzatuko
dira. Lehena, honakoa:
BERNARDO ATXAGAren literaturaren inguruko
hitzaldia: EGURRA ETA EZPALA.
19.30etan, GOIURI JAUREGIAN

25
Parral,
astearteeta-
ko ekital-
dia.
20.30etan

26
GASTEIZKO IRAKURLE
KLUBA (Geu elkartearen
ekimenez): **Liburua:** Anjel
Lertxundi, Mentura dugun
artean. Alberdania, 2001
Ordua eta tokia: **20.00etan**
Hikaateneo-n (Pintore kalea,
13)

28
GAUEKOAK. Aldabe. 0.00-
2.00. Larrugintza (lantegi irekia).
EUSKARAZ

Beste:
Lehiaketa: apirilaren 9ra arte: Uruzuno
literatura lehiaketa. Prosa eta Poesia.
DBHko 3. edo 4. Maila, Batxilergoa edo
Erdi Mailako Heziketa Zikloetako ikasleei
zuzendua. Antolatzailea: Eusko Jaurilaritzako
Hezkuntza Saila

Nafarroako erakundeak Aro Modernoan

(Nabarralderen eskutik. Mikel Sorauren de Gracia, historiagilea)

Aro Modernoan (XVI, XVII eta XVIII. mendeak), Nafarroa izenez ezagutzen dugunak, hau da, Espainiako Fernando Katolikoak konkistatutako Nafarroako Erresumaren zati horrek, estatus berezia izan zuen eta Erresuma subiranoko erakundeei eutsi ahal izan zien horrela.

Konkistaren sendotasunaren eta nafarren erresistentziaren arteko orekaren emaitza gisa

konkistatzailearekin egin zen itunak gaztelauari itun baten formalitatea onartzea aholkatzen zion; trukean Nafarroak errege onartuko zuen, betiere lurraldearen sistema instituzionala onartzen bazuen.

Itun horren fikzioak, hobeto edo okerrago, 1841 arte iraun zuen, nahiz eta Espainiako Koroak nafarrei etengabe presioa egin, hauek subiranotasun espainola inolako mugarik gabe aitortzeko.

Espainiarekin izan zituzten harremanak ez ziren oso errazak izan. Nafarrek, erresistentzia apur batekin bada ere, espainiar Inperioan sartzea onartu zuten, luzera begira, euskaldunen Estatuaren nortasuna suntsitzeko espainiar Estatuak hartutako erabakiaren aurrean, gudu hura galduta izan arren.

NAFAR ESTATUAREN IZAERA

Gure Historiako aro hori ulertu ahal izateko, gogoan izan behar dugu Nafarroa, euskaldunen Estatu, Erdi Aroan sortu zela, baskoiek estatu germaniarren aurrean –Erromako Inperioaren gainbeheraren ondoren agertu ziren Europan– eta hauek zekarten egitura latifundistaren aurrean erakutsi zuten erresistentziaren ondorioz. Boterearen zentzu komunitarioak azaltzen du erregea hartzea Estatuaren instituzio gorentzat, beti ere ordezkartza komunitarioan, nazionalean –historikoki Gorteak– oinarrituta, hauek une oro Erregearen izendapena eta jarduna kontrolatuko baitute, Erresumaren Konstituzioaren –Foruaren– arabera joka dezan.

Fernando Katolikoak eta honen biloba Karlos V.ak gauzatutako konkistaren ondorioz

gaztelauaren menpe jartzeko itun bat egingo da, baina honek duen izaera biolentia ezin izango da ezkutatu fikzio juridiko horren azpian. Egia esan, Foruan gerran sartzea edo bakea egitea Erresumak erabaki behar zuela ageri bazen ere, ez zen errespetatu halakorik, eta ez orduan eta ez gerora, eta Espainiako erregetzak ere ez zuen inolako eragozpenik izango Erresumaren borondatearen aurka jotzeko, Foruan besterik agertu arren.

Ordezkaritzak nazionalak –Gorteek– Nafarroako Erresumaren izaera Gaztelakoaren desberdina zela eta bi erreinuen legeak errege desberdina zutela defendatzen jarraitu zuten –nahiz eta biak errege berak adierazten zituen–.

NAFARROAKO ERAKUNDEEN ORGANIGRAMA

a. Estatu erakundeak

Errege gaztelauen ezarpenak atzerriko errege baten edo besteen errege baten presentzia ekarri zuen Nafarroako erakundeen amaiera gisa.

Dena den, Erresumatik kanpo egon zen beti eta bere agintea Koroak berak izendatutako erregeorde baten bidez gauzatu zuen. Legeak

onartzea, Errege Kontseiluaren presidentzia eta agintaritzat militarra zegozkion. Gorteek Nazioaren ordezkartza zuten; Nafarroako Erresumako hiru Estatuak, Gorte Nagusietan bildurik, egitatezko nagusitasuna eskatzen zuten, Foruaren interprete goren zirenez; eta honek erregea edozein egoeratan behar zezakeen, Forua zin egin behar baitzuen errege bihurtu aurretik eta zin hori ezin saihestu baitzezakeen.

Gorteek, modu konstituzionalean, botere legegilea zuten. Soilik Hiru Estatuak egin zitzaizkien legeak eta haiei zegokien legeak egitea. Erregearen boterea biltzar nazionalak aurkeztutako legeak onartzera zuzentzen zen. Espainiako erregetzari nahiko zaila gertatzen zitzaion boterearen murrizketa hori onartzea, eta botere legegilearen funtzionamendua ahal beste zaildu zuen gizon eta diruei dagokienez, Nafarroari gero eta betebeharrak handiagoak eskatzen baitzizkion.

Gorteen funtzionamenduak hauen independentzia bermatzen zuen; erregearen ordezkari zen neurrian, erregeordearen presentzia tronua irekitzera mugatzen zen, baina eztabaida eta bozketetatik kanpo gelditzen zen. Hauen izaera sekretupekoa zen, horrela

MEMBRIO-ALDARROAN
%0a

CEGASA PILAK
INDARTSUEENAK
ETA
EKOLOGISTENAK

CEGASA
INTERNATIONAL
ALCALINA



ZURE HARATEGIAK

Jose Luis
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA

Andaluzia kalea 13
☎ 945 28 79 42 · GASTEIZ

**XABIER
AIZPEOLEA** HARATEGIA

FLORIDA AZOKA 2 eta 3
☎ 945 13 24 48
ABASTOS AZOKA 2 eta 3
☎ 945 26 78 97

gure lurraldeko haragi samurretan espezialduak



historia zertzeladak

ordezkarien adierazpen askatasuna bermatzeko. Gainera, Biltzarrerako dei egiten zitzaientik beren funtziok utzi arte, immunitatea zuten.

Mahai inguruak guztien artean egiten ziren, baina bozketak hiru estatuak bereizita egiten ziren: elizaren esparruan, esparru militarrean eta hiribilduetan, bakoitzak bere bozketa egiten baitzuen. Adar bakoitzean gehiengoak lortu zuten erabakiak onartzen ziren, hiru besoen erabakiak bat bazetozen betiere.

Gorteek lehenengo erregearen eta honen ofizialen jarduna aztertzen zuten, Nafarroako legeen aurkako xedapen edo jarduerarik egin zuten eta kontraforurik bazen erabakitzeko. Gero, Nafarroarako legeak egiten zituzten eta, azkenik, beren eskaerak onartzen zirenean, erregeari zerga ordaintzen zioten, borondatezko dohaintza grazioso modura.

Prozesu horretan guztian, Koroak Erregeordearen bidez presio egiten zuen, bere helburuak lortu ahal izateko. Oro har, foru sistemak bere eraginkortasuna erakutsiko zuen, baina ezin da ahaztu espainiar monarkiaren izaera autoritarioa, Nafarroako Konstituzioa etengabe ahuldu baitzuen, zin egin arren eta itunak sinatu arren.

Errege Kontseilua erregeari aholkularitza eskaintzeko eta tokiko administrazioa gauzatzeko sortutako erakundea zen. Neurri handian Koroaren asmoak gauzatzeko balio izan zuen, erregeak, Foruak uzten zizkion eskumenak betez, erregeorde eta fiskal karguetarako atzerritarrak izendatzean. Horrek gatazka

larriak sortu zituen, Koroak adierazten zizkien jarraibideak betetzen baitzituzten.

Horrez gain, Kontseiluak Errege Gortearen Sala ere bazuen eta, bertan, bigarren instantzian justiziaz ardura zitekeen, Kontseiluaren salara jotzeko aukera ere izan arren.

Justizia xehea alkate nagusien bidez gauzatzen zen, tokiko administrazioaren arabera, legelarien aholkularitzaapean eta Errege Kontseiluak emandako arauak betez, honek gainbegiratzen baitzituen prozedurak.

Ordena publikoaren funtzioa justiziek eta pertsona armatu orok gauzatzen zuten, baina betiere alkateen eta erregeordeen aginduetara lan eginez.

Polizia judizial modura errege zaindari zeritzenean lan egiten zuten, eta auzitegiek erabakiak betearaztea agintzen zien eskribauak ziren hauek; beharrezkoa izanez gero, jende amaturik bildu eta beren aginduetara jarriko zuten, eta polizia judiziala osatzen zutela esan daiteke.

Erresumako Diputazioa Gorteetako batzorde finkoa zen eta Elizaren bi ordezkari, adar militarreko bi ordezkari eta herritarren adarreko hiruk osatzen zuten. Erregearen ordezkariaren jarduketak eta honek xedapenak aztertzekeo ardura zuen, Nafarroako Foruei inork kalterik ez egiteko. 1625etik aurrera hartu zuen izaera iraunkor hori. Gainera, ekonomiaren eta gizartearen esparruko arlo ugartan ardurak hartu zituen pixkana, administrazioak gero eta konplexuago bihurtzen ari zirenez.

Beraz, Nafarroako Gobernu bihurtu zen

hau, Errege Kontseiluak jasan zuen mediatizazioaren aurrean, nahiz eta hasieran funtzio betearazleak egokituko zitzaizkion.

Erakunde hori Monarkiaren menpe ageri zenez, berandu bada ere Diputazioa sortu zen, eta hau Gorteen batzorde exekutibo bihurtu zen. Honek funtzionatzeko Gorteek agindutakoa bete behar zuten eta agintaldi amaieran beren kudeaketa azaldu behar zuten.

Merkataritza Ganbera Estatuaren errentak zaintzeko kontuen auzitegi gisa ezarri zen. Nafarroako Monarkiak sortuta, gaztelauek desartikulatu egin zuten Estatuaren ondasuna fiskalizatzen zuen zorrotasunagatik, eta hau ez zaukaten erregearen jabetzatzat, Gaztelan geratzen zenaren arabera.

b. Bulegoak eta espedienteak

Erresumak hainbat bulego zituen, administrazioaren beharrei aurre egin ahal izateko. Administrazioaren burokrasia ez zen oso konplexua, baina eraginkortasun handikoa bai, Nafarroak garai historiko honetan egin zituen ekintzetan ikus daitekeen moduan; ekintza horiek eredugarriak dira eta kudeaketa eraginkorra eta zintzoa izan zen benetan, gaur egun oraindik ere eredutzat har daitezkeen kontrol sistemei esker.

Lehenik eta behin Erresumako Gordailua aipatu behar da: bulego horretan jendeak dirua ezartzen zuen eta gero maileguak edo bestelakoak egiteko berreskuratzeko aukera zuten. Gordailuzainaren ardura zen hori, baina Antso Monrealgoaren garaitik Iruñeko



APAINDURA

Zerkabarren kalea (Cercas), 27 Tfnoa: 945 14 41 95 GASTEIZ

Santo Domingo komentuan gorde zen dirua, segurtasun handiagoa izateko. Hiru giltza zituzten kutxek eta horietako bat Kontseiluko buruari, bestea Diputazioko Lehendakariari eta hirugarrena gordailuzainari eman zieten. Dirua ateratzeko Errege Kontseiluaren baimena eta notarioaren akta beharrezkoak ziren. Erresumak bere gastuetarako erabil zitzakeen gordailu horiek, baina gero itzuli egin behar zituen eta beti soberakina utzi behar zuen.

Erresumako gastuak hainbat espedienterekin betetzen ziren; horien artean, kanpo merkataritzari eta inportazioei eta esportazioei ezarritako Taulen espedienteak zegoen, epaitegien funtzionamendua finantzatzeko helburua zuena. Espediente hori eta geroago Tabakoarena Koroaren esku gelditu ziren eta horrek Erresumari kopuru jakin bat ordaintzen zion.

Kuartelak eta alkabalak zerga zuzenak eta zeharkakoak ziren; bereizita ez zeuden etxeei buruzko kuartelak eta barne merkataritzari buruzko alkabalak; horien bidez ordaintzen zitzaion Koroari dohaintza grazioso eta borondatezkoa.


Beste zerga batzuek kanpo merkataritza zergapetzen zuten, gero errepedeak finantzatzeko; hala, bada, Nafarroak Europa mailan bide sare onenetakoa zuen. Horiez gain, txokolateari ezarritako zergen eta beste zerga batzuen bidez Harremanen saila finantzatzen zen, oro har funtzio administratiboari erantzuteko ardura zuena.

HERRIETAKO ERAKUNDEAK

Nafarroako Estatuaren izaera publikoa herrietako instituzioetan ere ikus daiteke. Herriko administrazioak nahiz gizarte zibileko beste erakunde berezi batzuk barne hartzen zituen. Horien guztien ezaugarri berezia partaidetza unibertuala zen, hori bai, gizonezkoena bakarrik.

Herrietako karguak izendatzeko bozketa erabiltzen zen edo, bestela, Kontseilu irekian -Batzarre-izendatzen zituzten, errepublikako ofizio deitutakoetan.

Ondasun komunaren administrazioa eta erabakiak hartzea



kontzejuen zeregina zen eta batzarretan hartutako erabakiak erregidoreek garatzen zituzten.

FORU SISTEMAREN DESAGERPENA

Espainiako monarkiak foru sistema onartu zuen. Austriako Etxekoentzat Nafarroa Inperioaren beste lurralde bat baino ez zen, dinastiaren politika inperialistarako finantza bideak lortzeko eta Koroaren laguntzaileei errentak eta etekinak eman ahal izateko bide bat.

Borbongo Etxekoentzat Nafarroa espainiar Estatuako lurraldearen barnean txertatu behar zen, Europako potentzien barnean mailarik handiena lortzeko ahaleginean laguntzeko. Integrazio ekonomikoa, fiskala eta politikoa suposatzen zuen horrek, Koroaren botere absolutuaren zuzendaritzapean. Nafarroak -gainerako lurralde euskaldunek bezala- bere interes historikoak eta naturalak espainiar Estatuak adierazitzeko esparru horietan zituen eskaeren menpe jarri behar zituen.

XIX. mendearen hasieran espainiar Estatuaren izandako erreforma politikoa antzeko planteamendutan oinarritzen zen, baina espainiar Estatuako goi mailako klaseek garatu zuten eta burgesiarren forma hartu zuten, talde horretakoak ez izan arren.

Euskal gizarteko gehiengoak uko egin zion proiektu espainiarari; bazterketa horren ondorioz sortu ziren karlistaldiak. Liberalek lortutako garaipenak Foruen desagertzea ekarri zuen.

1841eko abuztuaren 16an Espainiako Gorteek emandako legeari batzuek hitzartutako lege

deitzen zioten. Lege arrunta da berez, eta Nafarroako sistema konstituzionalaren eraspena zehaztu baino ez du egiten, Nafarroako Gorteak eta horien izaera subiranoa deuseztatu ondoren; hori guztia 1939ko urriaren 25eko legeak berretsi zuen. Lege horrek Nafarroako foruak onartzen zituen, baina Espainiako monarkiaren batasun konstituzionalaren menpe.

Prozesua Bergarako Itunarekin hasi zen, Baldomero Espartero jeneralak Espainiako Gobernuari Foruak gordetzeko edo mantentzeko lege bat emateko eskatzeko konpromisoa hartu zuenean; urriaren 25ekoa izango da lege hori. Lege horrekin bat etorritik, Espainiako Gobernuak Diputazio bat antolatu zuen Nafarroan, baina ez zion foru sistemaren eskaerei erantzuten eta ordezkariak ere oso txikia zen; horreagatik, batzorde bat sortu zuen gai hori buruz Gobernuarekin hitzarmena lortzeko. Hitzarmen horren emaitza hitzartutako lege hori izango da.

Lege horretan Gorteak eta horien lege ahalmena deuseztatuko da eta Errege Kontseilua eta epaitegi nafarrak ere baliogabetuko dira.

Probintzia Diputazioa sortu zen, gainerako probintzietakoa bezalakoa, eta Espainiako Gobernuak ezarritako moduan hautatutakoa. Diputazio horrek zergak biltzeko eta administratzeko eskubidea izango du, inolako kontrolik gabe eta subiranotasun osoz, kuotaren ordainketari dagokionez Espainiako Gobernuarekin egindako hitzarmenen kasuan eta Estatuaren funtzioen araberako beste eskaera batzuen kasuan izan ezik.

Gatzaren, bolboraren eta sufreaken zergak ezarriko dira Estatuaren onurarako eta Pirinioetan aduanak jarriko dira, Nafarroaren eta Pirinioetako beste aldeko lurraldeen arteko batasun ekonomikoa berretsiz.

Beste alderdi garrantzitsu bat Nafarroari soldaduak bidaltzeko ezarritako derrigortasuna izango da, une horretatik aurrera armada espainiarren menpe egongo baitira.

(testu itzulia: aztiri)
© Geu aldizkaria, Nabarraide
eta Mikel Sorauren

**Confecciones
Pinedo**
JANTZIAK

San Antonio kalea, 11 • GASTEIZ
Tfnoa.: 945 23 39 90

**EYSKAL LABELA
LASAGABASTER**
harategia eta urdaitegia

Gasteizko
haragitegirik zaharrena

Errege atea, 24
Tfnoa: 945 25 56 90 Gasteiz

JOSETXO taberna



"ez dago
pintxorik"

Elizalde, z/g
Tfnoa: 945 31 45 74
ARALA (Araba)

GORETTI
ILEAPAINDEGIA

Hedegile kalea (KORRE), 14
(San Migeleko pasabidea)
Tfno: 945 12 08 88 • 01001 - GASTEIZ

EL BAR Kutxi
eguneko



Errege atea, 9 • GASTEIZ
Tfnoak: 945 25 05 30 / 945 25 66 85

LA RIOJANA
jatetxea
on egin!

bokatak,
pintxoak,
kazulatzkoak

Aiztoagile kalea (KUTXI), 33 tfnoa. 945 25 02 39

edurne herran:

"nire artelana ikuslegoak osatzen du"



Gaztea izan arren artista gasteiztar honek arte munduan bere lekua sendotu du, ez bakarrik bere estetika koloretsuagatik ezagun bilakatu delako baizik eta karrera amaitu ez badu ere bere curriculuma erakusketa kolektibo nahiz bakarkako zerrenda luze batek osatzen duelako. Edurne Herranek 2000. urtean ezagutarazi zituen bere lehen artelanak, "Los malos tratos", "Imposición", "Dulce Venganza", "El laberinto de los sentidos", "Supermercado de arte" eta "Objetos en la calle" izeneko

erakusketetan, besteak beste; horietatik batzuk Gasteizen ikusgai eta beste batzuk, ordea, Euskal Herriko arte areto desberdinetan.

Bere azken lana 'Zuloa Irudian' ikusi ahal izan da otsailean. Barbiek eta zakilek bat egin duten argazkiak, horman dauden panpina zatituak edota Berlingo gay-en egunean hartutako irudiek osotu dute "Carne, huesos y tú", Edurne Herranen urte honetako lehenengo erakusketa. Bertan, Erasmus Becari esker Berlinen eginiko egonaldian jasotako lana bildu du hogeita bost urteko gazte honek. Orain, berriz, karrera amaitu eta kanpora joateko ideiarekin amesten du Herranek; horretarako Café Arte-n lan egiteaz gain, bere artelanak ere salgai jarri ditu. "Berlinekin maitemindu nintzen eta udan berrir bidaiatuko dut hara behin-behineko egonaldian. Nire ideia tesia bertan egitea da".



edurne herran

- Eskultura eta argazkiak egiteaz gain, jantziak ere diseinatzeko dituzu. Lehenengoz deitu zaituzte Madrilgo "Antimoda" desfilean zure jantziekin parte hartzeko, nola joan da saialdia?

Oso ondo, oso 'rollo' ona egon da disenatzaileen artean. Hasieran oso urduri nengoen baina gero oso ondo joan zen dena. Aurtengo pasarela "El ataque de los clones" izenburua zeraman, hori dela eta, nik eramandako bi jantziek horrekin zerikusi zuzena zeukaten; bata, panpinekin egindakoa zen, eta bestea, azal koloreko panpin puzgarri baten itxura hartzen zuena. Madrilgo "Joy Esclava" diskotekan izan zen eta jendearen artean Paco Clavel ikusi ahal izan genuen, besteak beste. Bertara sartzeko bost euroko sarrera ordaindu behar zen, diru hori sexu-abusuak jaso dituzten umeentzako bildu zela.

-Nola sumatzen da Arte Ederretako karrera bukatu berri duen ikasle baten lan merkatua?

Karreraren ezagutu izan dudana gatik, interesen arabera jendeak erakustea bilatzen du edota ez; ni zentzu horretan lehenetarikoa izan naiz. Hirugarren mailara arte presarik ez neukan ikasketak bukatzeko, baina orain osterira irrikitan nago. Egia da hasiera batean norbaitek aukera eskaintzen dizula, baina hori ez da dena; gero mugitzen zarenaren arabera gauzak modu

batez edo bestez joango dira. Nire egoerari dagokionez, neurri har di batean zortea izan dut gustuko dudana zerbait egiten ari naizelako; finean, hanka bat barruan eta bestea kanpoan dut..., eta ikasketek azken urtean nagoen arren izugarriko nagikeria ematen dit Leioara egunero joateak. Arrazoiak da Berlineko heste 'rollo' bat dagoela, eta tutore zak internetez egiten dira, erlazio askeagoa da, eta ni lan egiteko erosoago eta askeago sentitu naiz horrela eta ez hemen bezala.

-Zure arteak mezurik badu?

...Nik egiten dudana ikuslegoak osatzen du; izan ere, nire artelanaren aurrean jendeak jasotzen duen sentsazioa ezagutzea gustatzen zait; gustatzen zaien, ez zaien gustatzen, nazka ematen dien..., onerako eta txarrerako jendeak pentsatzen duena jakitea interesatzen zait, nire gertuko jendearen iritzia, baita artistak edota lagunena ere. Gerora, beti hartzen ditut ezustekoak, adibidez Zuloako azken erakusketan ni eta Berlingo lagun bat gauden bederatzi argazkiz osatu multzoa jarri dut salgai, prezio altu batean, oso oroitzapen onak ekartzen baitizkit, eta ez nuke saldu nahi, ...ni oso fetitxista naiz eta zerbait gustatuz gero, uff!!!..., beno, ba hala eta guztiz ere jendea gehien gustatu zaiona izan da.

"hain da grisa Gasteiz..."

-Arrosa al zen Edurne Herran karrera hasi baino lehen?

Beno, hasieran moreagoa nintzen; morea gustatzen zitzaidan gehiago baina gero arrosara pasa nintzen. Kolore honekin jantzen naiz batez ere betidanik erlaziozko dudalako zorte onaren ideiarekin. Izan ere, nire aita Berlingoa da eta han leku askotan bezalaxe txerriak zorte onaren sinboloa dira. Aspalditik egiten dut nik txerri-panpinen bilduma: orain arte 3.000 panpin bildu ditut, zoratzen naute. Bestetik, esan behar dut, Edurne Herranek betidanik izan duela antzeko itxura, ez naiz sekula moztu eta egia esateko, egunero margotzen egon ostean gorputzak kolorea eskatzen dizu, hain da grisa Gasteiz...

Naturaren isladak

Gure mendietan han-hemenka aurkitzen den indar handiko landarea, bai osatzeko bai pozointzeko. Kontuz ibili!



Otsababa
(Helleborus
foetidus).



IZA 03/2

kuba



- **NONDIK NORA:** Gasteiz-Kuba
- **HERRIAREN DATUAK:** Kubako errepublikan 11 milioi kubatar inguru bizi dira. 110.860 Km²-ko azalera du irlak eta bere hiriburua Habana da. Gaztelania da euren hizkuntza. Peso kubatarra da bertako moneta, baina dolar amerikarra ere erabili ohi dute. Etniei dagokienez, mulatoak, zuriak

eta beltzak dira nagusiak.

• **NOLA JOAN:** Hegazkinez Madriletik Habanara.

• **ZENBAT DENBORA:** 2 aste.

• **AURRETIK PRESTATU BEHARREKOA:** Pasaportea eta bisatua.

• **MOTXILAN ZER ERAMAN:** arropa arina, jertsea, eguzki krema eta bainujantzia, txubaskeroa eta aterkia (udan baldin bazoazte) eta argazki makina.

• **TXANPONA:** Dolarra (peso kubatarra eurek bakarrik erabiltzen dute).

• **HIZKUNTZA:**

Gaztelania.

• **HELBIDE-KONTAKTU INTERESGARRIAK:**

- Teresita Valiente. San Ignacio, 205 (Obra Pia eta Lamparilla artean), Habana Vieja. (Etxea alokatuko dizue)
- Dos Hermanas kanpina. Viñaleseko bailaran.
- Bidaiatzeko:
- Viazul autobus-konpainia: Kubako edozein tokitara eramango zaituzte. 26 eta Zoologico kaleen artean dago.
- Kotxea alokatzeko: Havanautos (Miramar Playa, Habana).

• **TOKIAREN DESKRIBAPENA:** Kuba zirrarez betetako herrialdea da, maitagarria eta ahazteko zaila. Karibeko epeltasunak bisitariari harrera egiten dio hegazkinetik jaitsi bezain pronto, eta bertako etxe kolonialek, musikak, jendeak eta bizitzeko erritmo lasaiak argazki batek baino gehiago balio dute.

• **PLAN EREDU EGOKIA:** Gutxienez bi edo hiru asteko bidaia egitea gomendatzen dugu.

- Hegazkina Habanara heltzen denez, bertan pasako ditugu aurreneko bizpahiru egunak. Habana hiri handia da eta txoko interesgarri anitz ditu ezagutzeko.
- Habanatik Trinidadera. Bertan lau egun igaroko ditugu.
- Trinidadetik Sancti Espiritusera. Bertan egun bat.
- Sancti Espiritusetik Habanara.
- Habanatik Pinar del Riora.
- Pinar del Rion eta Viñalesen bizpahiru egun.
- Itzulera Habanara. Habanatik Madrilera eta etxera.

• **AHOLKUAK, JAKIN BEHARREKOA:**

- Hotela alokatu gabe joaten zaretenok jakin ezazue erraz askoa dela bertan lo egiteko lekua aurkitzea.
- Kubara bidaiatzeko garai hoberena negua-udaberria da (udan euriteak eta haize erauntsiak daude)
- Jatetxez gain, "paladar" izeneko lokalak daude, batzuk "ilegalak" dira, baina bertakoei diru apur bat emateko modu on bat da.



DERRIGORREZ EZAGUTU BEHARREKOA:

- Habana Vieja: Amerika osoan hobekien kontserbatutako hiri koloniala da. Bertan, Armen Plaza, Malekoia, Katedrala, Iraitzaren Museoa, Jose Martiren etorbidea... ezagutu behar dira.

- Pinar del Rion eta Viñalesen tabako-landaketak ikustea merezi du.

- Hondartzak gustuko dituzue-nok irlaren inguruetako irlatxoetara (Cayo izenekoak) joan zaitezke.

DIOCESANAS-MENDIZORROTZA OSTALARITZA ESKOLA

sukaldaritza
denbora-pasa

Entsalada berdea urdaiazpiko kurruskari eta idiazabal txirbilekin



4 PERTSONENTZAKO OSAGIAK:

Urdaiazpiko iberikoa (xerra fina) 100 g.
Idiazabal gazta (txirbilak) 100 g.

Ozpin-olioa:

Sagar ozpina 1 c.s.
Jerezko ozpina 1 c.s.
Albahaka olioia 1 c.s.
Oliba oliu birjina 4 c.s.
Perrexila, estragoia eta albahaka 1 c.s.
Gatz fina 1 c.c.

Barazkiak:

Haritz edo lollo rossa hostoak 4 u.
Kalonje hostoa 8 sorta
Eskarola zuria eta fina 12 adar.
Txikoria gorria (treviso) 4 hosto.
Txanpinoi zuria 4 u.
Tirabekeak puntu-puntuan 12 u.
Errefau makilatxoak edo xerrak 4 u.
Tomate mamitsua eta heldua 1 u.
Tipulina eta perraitza 8+4 u.

Prestakuntza:

- Urdaiazpikoari ertzak kendu, oliba olioz busti eta labean sartu, ez oso tenperatura altuan, silikonazko bi plaken artean.
- Gazta ebaki (kanpoko azal gogorra kenduta) fianbrea mozteko makinan eta gerorako gorde.
- Barazkiak garbitu, nerbioak kendu, ur hotzetan garbitu eta eskuz zatitu.
- Txanpinoia garbitu, lurra ondo kendu, xerra txikitan zatitu, limoiaz igurtzi eta gorde.
- Tomatea tirabekeak egosteko erabili dugun ur berean egosi, izotz uretan freskatu, azala eta haziak kendu eta dado txikitan zatitu.
- Tirabekeak erditik zabaldu luzeran, haziak kendu eta gorde.
- Errefauak 2 mm-ko xerratan eta lodiera bereko makilatxotan moztu eta izotz uretan sartu erabili arte.
- Ozpin-olioaren osagai guztiak batu, apur bat nahastu eta gorde.


PLATERAREN ANTOLAKETA

- Barazki guztiei gatz eta ozpin-olioa bota (bakoitzari aparte). Plateraren erdian barazki guztiak txukun aurkeztu eta urdaiazpikoa eta gazta txirbilak erdian tartekatu. Gainean makilatxotan edo xerratan moztutako errefaua bota. Inguruan tomate dadoak, txanpinoi xerrak eta irekitako tirabekeak jarri. Amaitzeko, ozpin-olioa bota eta tipulin eta perraitz adartxoekin apaindu.

(testu itzulia: aztiri)

Hitz Gezidunak

(LUMA)

	Kafea edateko lekuak	Badago	* Deitura	1600	Dolumin
	Ez estua	Ikusteko organo	Ledeakoak		
				Kontsonante bustia	
				Iparretarrak	
	* Izena				
	Deabru				
Ibarak	Lazoak, xederak			50	
Beldurti	Arrazoi			Atzizki femeninoa	
		Omen		Gar	
		Sagarroi		Izana	
Burdinazko lokarri		Ezin aipa daitekeena			Toka, du
Pl., labore mota		Bokala			
				500	
				...tak, erlojo hots	
Haur hizk., haur		Hala Bedi, esaterako			
Txinako trautzaile		Sufrea			
	Libra			Naizen honek	
	Iodoa			Oxigenoa	
Nitrogenoa	Alderantziz, modu atzizkia	Ukapenak			

*XIX mendearen 2. erdiko eta XX. mendearen hasierako ikertzaile, idazle, itzultzaile eta publizista gasteiztarra. Euskara arloko bere lanik garrantzitsuenak Arabako hitz herriko originalenen (euskal jatorrizkoak gehienak) bilketan oinarritutakoak izan ziren.

Soluzioa:
34. orrialdean

testua: maria angeles peña arce

(geu aldizkariak itzulia)

arte eta lanbide eskola



Egilea:

Maria Angeles Peña Arce

EHUN-ARTE TAILERRA

"Ordenagailuen, goi-teknologiaren, espaziorako bidaiei eta ehun sintetikoaren aroan, gogoko dut atzera begiratu bat ematea eta ehun naturalak sentitzea, euren ehundura, leuntasuna, berotasuna... (jute, kalamua, lihoa, artilea, zeta, kotoia, sisala, espartzua...).

Hariak ene eskuetan jolasten dira; itxura, bolumena, ehundura hartuz doaz, jolas, irazki eta bilbe batean, non garrantzikoena jolastea baita, amaiera arte magia galtzeke.

Elkarren artean, musikari jarraituz, gurutzatzen diren harien dantza bat bezalakoa da, hatzamarren eskura gozatzen dutenak, azken nota entzun eta amaiera iritsi dela jabetu artean. Orduan artelanarekin, emaitzarekin, topo egiten dugu, musika berriro has dadin desiratuz..."



ADI, ADI! GEUJIRAN IRRATSAIOA



Geu elkarte
eta Geu
aldizkariaren eskutik uhinetan abian
jarritako euskarazko irratsaio
koloretsu, fresko eta bizia. Bertan
euskaltasunean eta gaurkotasunez
KULTURA, LITERATURA, MUSIKA,
ARTEA, IRITZIA, AISIA, KIROLA eta
GIROTXOArekin topa egiteko
aukera izango duzue! **astelehenero,**
23.30etatik 24.00etara, zuekin,
GEUJIRAN, Radio Vitoria-n.

kangeuroak

Umeak zaintzeko Kangeuroen zerrenda
osatzen jarraitzen dugu. Zerrendan agertu
nahiez gero eman izena eta telefonoa eta
zehaztu zure ordutegia (egun osoz, goizez,
arratsaldez,...): **945222153 / geugaste@grn.es**
(horrela norbaitek KanGeuro baten beharra
badu hemen du aukera zurekin zuzenean

kontaktuan jartzeko)

- **Ordutegi guztiak**
Maria. 656745969
Miryam. 656761588
- **Arratsaldez** Patxi. 652743205
- **Gauetz** Nerea. 658733934
- **Asteburuak** Nagore. 945281124
Marta. 606415235

lan poltsa

GEU elkarte monitor euskaldunen lan-poltsa
osatzen ari da proposamen berrietan lan egin ahal
izateko. Bidali curriculum txiki bat postaz edo
e-postaz (**geuelkarte@grn.es**) Arduraduna: Josune.

GAUEKOAK&GEU

Martxoaren 15ean, larunbata,
Aldabean, 22.30etatik 24etara:
BENTRI-MAGIK (Elvi sabeliztuna eta
Marsel magoa) + ITZIAR
REKALDEren NARRAZIOAK
("Ez sufritzeko erremedioak").

geurekin mendira

zatoz geurekin mendira!

Martxoaren 16an

PUTTARRI (1299)

Informazioa: 945132758 (Txipi)

Irteera tokia: Lovaina plazan, goizeko 9.00etan
(Kotxea baldin baduzu, eraman).

mintzalagun egitasmoa

Euskaraz mintzatzeko, euskaraz jende berria ezagutzeko, euskaraz
ondo pasatzeko...

Astindu lotsa eta deitu elkartera (945222153-Josune).

Zenbat eta lagun gehiago, orduan eta talde desberdin gehiago!
Egun abian dagoen taldea ostegunetan biltzen da,... Deitu eta
emango dizugu informazioa (Josune).

geu azoka

deitu edo idatzi zure iragarkitxo argitaratzeko! (iragarkiak
alez ale berritu behar dira)

-Salmentak, alokairuak

Apartamentua alokatzen dut (altzariak baditu) Federico
Baraibar kalean; 45 m2 ditu honela banatuak: logela bat,
egongela, bainugela, eta arropa zabaltzeko balkoi txikia. Gaseko
berokuntza du eta igogailua ere bai. Oso zaindua dago eta
bista ederrak ditu. 653714556 (Jone).

-Umeak, etxekolanak, eskola partikularrak, lana

KULTUR ERROTA&KORRIKA KULTURALA

Geu elkartearen eskutik, BUHAMIAK ipuin-kontaketa
Martxoaren 4an, asteartea Parral-en, 20.30etan.

mahaia

Hilero Geu
aldizkaria-ren
mahaia dugu erdi
aroko hiriguneko azokan, arkupeetan,
gure egitasmoa ezagutarazteko, gure jardueraren
berri emateko. Hemendik aurrera berrikuntzak
topatuko dituzue: eskaintza berriak, sorpresa-
txartelak, opariak...; eskaintza berrietan, esaterako:
MANTXUT bilduma.



Ez galdu aukera eta erdu gurera!

Etorri bisitan! Gogoratu, hile bakoitzaren
lehen larunbatean!

Argazki - Estudioa

Erramun

Heradio Fournier, 23
Inoa: 13 71 02
01006

Askatasun kalea, 5
Inoa: 26 19 91
01004



**Hegoamerikako
jantzirik ederrenak**

Pintore kalea. (S. Frantzisko kantoiko
artzean) Tfnoa: 945 25 03 52

DaLvez

argitarazleak

maketazioa

Tel./Faxe: 945 24 52 69

Tfnoa. 652 77 65 09

dalvez@dalvezdiseinua.euskalnet.net

diseinua

geure
gomendioz

literatura
liburua

denboraren izerdia

Egilea: Xabier Montoia
Bilduma: Literatura 227
Orriak: 222 **Salneurria:** 14,30 euro
Data: 2003ko otsaila



Iaz ipuin-liburu hunkigarri bezain zirraragarria idatzi ostean, zeresana emango duen nobela batekin datorkigu Xabier Montoia: estiloz zorrotza, gaiz polemikoa, edukiz aberatsa. Galdera asko egiten eta eginarazten dizkigu geure buruaz, pertsonalki nahiz kolektiboki. Soziologikoa baino gehiago pertsonaia-eleberria da hau, ordea, irakurleok aldi berean maiteko eta gorrotatuko dugun protagonistaren barne sakon eta konplexuan murgiltzen baikaitu, eta haren eskutik eraman lurreko zerutik infernuetara.

Aldeko du haizea Jon Ezenarro: zinema-produktore arrakastatsua da Madrilen, neska fin batekin ezkontzekotan da, maitale bat du bere grinak asetzeko, aspaldiko militantziak ere eder ematen dio kurikulumak osatzeko. Esne-mamitako amets hori, ordea, zapuztu egingo zaio bat-batean, esku artean zapartatzen den lehergailuaren antzera.

Amari ebakuntza larri bat egin behar diotela-eta, etxera dator Ezenarro. Madrildik Gasteiza bitarteko kilometro

laburrek bi mundu bereizten dituzte, aro bi ia-ia, arrapaladan baitatozkio iraganeko mamuak, aspaldian lurperaturik uste zituen zonbiak, urteen herdoila kenduta beren odolezko zorra kobratzera.

Soberako hitzik gabe, esaldi bakoitza labanaz ebakita bezala idatzi du Montoia eleberri izugarri hau, protagonistaren historia pertsonalarekin batera azken hogeita bost urteetako gure historiari errepaso gupidagabea ematen diona, eta bakoitzaren barne ezkutuan gordetik dauden auziez gogoeta eragin: traizioaz eta adiskidetasunaz, garaipenaz eta porrotaz, taldeaz eta norbanakoaz...

Xabier Montoia musikari eta idazle gasteiztarrek euskal poesiari berri eder bat eman zion 80ko hamarkadako bere hiru liburuekin: *Anfetamiña* (1983), *Likantropo* (1985), *Narraztien mintzoa* (1988). Geroztik kontagintza landu du, eta liburu hauek argitaratu: *Non dago Stalin?* (1991), *Emakume biboteduna* (1992), *Gasteizko hondartzak* (1997), *Plastikozko loreak erregearentzat* (1998), *Hezur gabeko hilak* (1999), *Baina bihotzak dio* (2002).

geuren ekimenez:

Gasteizko irakurle Kluba
6. eta 7. saioak

Honako hauek dituzte **martxoan eta maiatzan hasieran** mintzagai izango diren liburuak:

-Anjel Lertxundi, *Mentura* dugun artean. Alberdania, 2001
Martxoaren 26, asteazkena

-Jane Austen, *Harrotasuna eta aurre-juzkuak*. Ibaizabal, 1996
Maiatzaren 7, asteazkena

Saioen koordinatzailea: Iban Zaldúa

Ordua eta tokia: 20.00etan
Hikaateneo-n (Pintore kalea, 13)

Literatur lehiaketa

Martxoko galdera:

Geu elkarteak eta Geu aldizkariak irratsaio bati heldu diote oraingoan. Nola izena du, eta non eta noiz entzun daiteke?

geugaste@grn.es

Otsaileko galdera:

Zer esan nahi du "gaur zortzi etorriko dira" esakuneak?

Irabazlea: Valentin G. Zorionak!
[irabazitako liburuak: Anjel Lertxundi-
ren *Ezkutuko maitea* (elkar)]

Erantzuna: gauden eguna zenbatuta, zortzi egunetara, hots, gaur astelehena bada, 'datorren astelehenean etorriko dira'.

musika
cd-a



Harri herri, irri urri
Gu gara gure gero
Harri herri gora
Gu herri gara
Gero bat gaurdanik
Geroaren egarri
Ez dok hamairu
Ez malefiziorik
Bada egitekorik...

korrika 13

gero bat gaurdanik

Hitzak: Igor Elortza

Musika: Bingen Mendizabal

Abestia: Mikel Laboa eta Ruper Ordorika

Eta besteak beste, Hasier Oleaga gasteiztarra baterian, eta Josu Zabala akordeoiarekin.

Gasteizen grabatua eta nahastua "El cantón de la soledad" estudioan.

Igor Elortzaren hitzetan, "Aurtengo mezuak euskara eta euskal kultura bultzatzea du helburu. Ez Dok Amairu-ren sasoi hartan lege, orain ere egin genezakeela ulertu nuen eta, lemaren berba nagusiak hartuta, hitz-joko fonetikoak osatu ditut. Ahalegindu naiz Korrika 13ren mezua islatzen; irudiak egin ditut berbekin".

Korrika 13 honek "Ez dok amairu" sortu zuten haien kemena eta gogoak gaurkotu egin nahi ditu. Jakina denez, izena Jorge Oteizak jarri zion, Azkuek Bizkaian jasotako herri-
ipuin batetik hartua, euskal kulturaren alorrean hamahiruaren adur gaiztoa hautsi eta pizkundek aurrera joko zuela adierazteko.


Otsaileko aleko arte txokoko zozketaren irabazlea: **Haizea Rodriguez**

Zorionak! Zuretzat, Sorkunen Onna CDa Erantzuna: Sorkunen disko berriaren ONNA izenburuak japonieraz 'emakume' esanahia dauka.

denbora-pasaren soluzioa
(31. orr.)

	K	B	B	M	
	Z	A	B	A	L
	F	E	D	E	R
S	S	E	G	A	D
K	A	K	A	T	I
K	A	T	E	T	A
G	A	R	A	G	A
N	I	N	I	I	R
M	A	O	A	S	K
N	I	K	U	K	O

* Federico Baraibar



Euskaldunon Egunkariaren harpidedun ("terrorista/terrorista!") batek marraztutakoa
Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

MARTXOA

korrika KULTURALA

Babesleak:

Mendia Optika
Kide apaindura
Cafés La Brasileña
Izargi argitaletxea
Albeniz liburudenda

Laguntzaileak:

Parral taberna
Gasteizko Gaztetxea
Hala Bedi
Bagare
Azkena
Geu elkarte
Geu aldizkaria
EHE

- 2 20:30etan Hala Bedi tabernan
- "Bele bizi" Kabareta
- 4 20:30etan Parral tabernan
- "Buhamiak" Doro Zobaran ipuin kontalaria
- 5 17:30etan Amaia zentroan
- Hizkuntza eskubideen inguruko kafe tertulia.
Hizlaria: Paula Kasares
- 6 20:00etan Aldabe gizarte etxean, diapositiba emanaldia
- "Nanga Parbat" erako espedizioa
Hizlaria: Montxo
- 12 20:00etan Florida Kultur Etxean, diapositiba emanaldia
- "Afrikako hegoaldeko animaliak"
Hizlaria: Xabier Aranburu
- 13 20:30etan "Metxa" antzezlan, Printzipal Antzokian
- 15 19:30etan Gaztetxean
- Sagardo festa
- Kontzertua: POMADA + MAIALEN LUTANBIO + JEXUX MARI IRAZU
- 16 20:30etan magia emanaldia, Hala Bedi tabernan
- 19 20:00etan Florida Kultur Etxean, diapositiba emanaldia
- "Euskal Herriko bira oinez"
Hizlaria: Julen Manterola
- 20 20:30etan Aldabe gizarte etxean, diapositiba emanaldia
- "Harkaitzean bidea egiten"
Hizlaria: Pablo Aldai
- 23 20:30etan Kontzertua Hala Bedi tabernan: ANASTUA JAZZ BAND
- 25 20:30etan Kantaldia Parral tabernan: AITZOL MUJICA
- 26 20:00etan eta 22:00etan laburmetrai emanaldiak, Mikeldin
- 27 12:00etan bertso saioa Unibertsitateko Pabilioan
- Iñaki Viñaspre, Iñigo Izagirre, Oier Azula eta Urko Egaña
- Gai jartzaile: Irati Anda

dek

GASTEIZ



araba euskaraz 2003



Laguntzaileak:

Ikastolen Elkarte - Oion. San Bizente ikastola
Vital Kutxa Fundazioa - GEU aldizkaria - Oiongo Udala
Gasteizko Udala - Aguraingo Udala - Laudioko Udala

AGURAIN

martxoak 9 12,00etan.

KULKI: parte hartzeko herri kirolak

Donibane plaza

LAUDIO

martxoak 21 15,30etan.

POKOPIKO TALDEA musika eta antzerkia

La Granja polikiroldegia

GASTEIZ

maiatzak 10 19,00etan.

HORTZMUGA antzerkia: "Galaxi"

Foruen plaza

maiatzak 24 20,30etan.

OSKORRI kontzertua

Principal Antzokia